

# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO JARDUNA KOORDINATZEKO SAKANAKO I. LURRALDE- PROTOKOLOA

2021EKO OTSAILA



Altsasuko Udala  
Ayuntamiento de Alsasua

**Mank**  
s a k a n a



Jardun hau berdintasun ministroaren diruz lagundurik egin da, berdintasunaren aldeko eta genero indarkeriaren aurkako estatuko idazkaritzaren bidez.

## IZENBURUA

---

### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO JARDUNA KOORDINATZEKO SAKANAKO I. LURRALDE- PROTOKOLOA

#### BULTZATZAILE ETA FINANTZATZAILEAK

---

- ▶ **BULTZATZAILEAK:** Ziordiko, Olaztiko, Altsasuko, Urdiaingo, Iturmendiko, Bakaikuko, Etxarri Aranazko (Lizarragabengoa), Arbizuko, Ergoienako (Lizarraga, Unanu eta Dorrao), Lakuntzako, Arruazuko, Uharte Arakilgo, Irañetako, Arakilgo (Ihabar, Murgindueta, Hiriberri, Egiarreta, Satrustegi, Zuhatzu, Aizkorbe, Errotz, Izurdiaga, Urritzola, Etxarren, Etxeberri eta Ekai) eta Irurtzungo udalak.
- ▶ **FINANTZATZAILEA:** Berdintasun Ministerioa, Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Idazkaritzaren bidez. Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Ituna.

#### LAGUNTZA TEKNIKOA

---

IBAIN Consultoría, S.L.

#### PROTOKOLOA EGITEN SAKANAKO ZERBITZU PUBLIKO HAUEK PARTE HARTU DUTE:

---

- ▶ Altsasuko udaleko berdintasun-zerbitzuak.
- ▶ Sakanako Mankomunitateko berdintasun-zerbitzuak.
- ▶ Foruzaingoak (Altsasuko polizia-etxea).
- ▶ Altsasuko udaltzaingoak.
- ▶ Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateak.
- ▶ Etxarri Aranazko Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateak (Arbizu, Bakaiku, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Lakuntza eta Urdiain).
- ▶ Irurtzungo Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateak (Irurtzun, Arakil, Uharte Arakil, Irañeta eta Arruazu).
- ▶ Genero-indarkeriaren Biktimentzako Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko Arreta Osoko Taldeak.
- ▶ Altsasuko osasun-zentroak.
- ▶ Etxarri Aranazko osasun-zentroak.
- ▶ Irurtzungo osasun-zentroak.

#### 2021EKO OTSAILA



<b>1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO MODUA KOORDINATZEKO SAKANAKO AKORDIOA .....</b>	<b>4</b>
AURKEZPENA.....	4
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE-EGITEA KOORDINATZEKO SAKANAKO AKORDIOA .....	6
<b>2. SAKANAKO GIZARTE-, POLIZIA- ETA OSASUN-ZERBITZUAK KOORDINATZEKO LURRALDE-PROTOKOLOA .....</b>	<b>14</b>
2.1. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA SAKANAKO PROTOKOLOAN .....	14
2.2. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARRETA EGITEKO JARRAIBIDE OROKORRAK PROTOKOLOA SINATZEN DUTEN ZERBITZUENDAKO.....	17
2.3. JARDUKETA-PROZEDURA ESPARRUAREN ARABERA .....	19
2.3.1. JARDUKETA-PROZEDURA GIZARTE-ZERBITZUETAN .....	22
2.3.2. JARDUKETA-PROZEDURA POLIZIAREN-ZERBITZUETAN.....	32
2.3.3. JARDUKETA-PROZEDURA OSASUNEAN.....	39
<b>3. SAKANAKO UDALEK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA-KASU LARRIEI EMANGO DIOTEN ERANTZUNA .....</b>	<b>48</b>
3.1. SAKANAKO UDALAK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN KONTRA LERRATZEN DIRA .....	48
3.2. SAKANAKO UDALEN JARDUNA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAGATIK EMAKUME BAT HILTZEN DUTENEAN EDO BIZIRAUN DUTENEK ZAURI LARRIAK DITUZTENEAN.....	49
<b>4. PROTOKOLOA KUDEATZEKO EREDUA .....</b>	<b>52</b>
5.1. PROTOKOLOA KOORDINATZEKO ETA KUDEATZEKO EGITURAK.....	52
5.2. PROTOKOLOAREN PLANIFIKAZIO-, JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA.....	53
<b>5. PROTOKOLOKO LANGILEEN DIREKTORIOA.....</b>	<b>57</b>
<b>6. ERABILITAKO ERREFERENTZIAK.....</b>	<b>59</b>



## AURKEZPENA

Genero-berdintasunerako munduko agendaren oinarritzko helburuetako bat da, oraindik ere, munduko emakumeek eta neskek bizi duten indarkeria saihestea eta desagerraraztea. Protokolo hau egiten ari den urtean, Beijingen egin zen Emakumearen inguruko Munduko IV. Konferentziaren 25. urteurrenean, Nazio Batuen Erakundeak emakumeek bizi duten indarkeriarekin amaitzeko mekanismoak gara ditzaten eskatzen die estatu guztiei, hedatuen dagoen, gehien irauten duen eta ondorio larrietakoak dituen indarkerietako baitu. Emakumeek eta neskek bizi duten indarkeria Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda betetzeko oztopoetako bat da, eta era egituratuan gertatzen da gizarte, komunitate, eta inguru guztietan, publikoak zein pribatuak izan, beste aldagaiak edozein direla ere, hala nola heziketa-maila, adina, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, hirian edo landa-eremuan bizi diren.

Azken urteotan, esku-hartze publikoa duten eremuetan legediak eta baliabideak sortzen edo moldatzen ari dira, emakumeek bizi duten indarkeriari behar den arduraz aurre egiteko. Emakumeek eta neskek bizi duten indarkeriari heltzeko modua era historikoan eraldatzen ari dira hobekuntza horiek, eta eragin ona izaten ari dira indarkeria saihesten, hautematen, indarkeriatik babesten, biktimen arreta egiten eta bizirauten duten biktima guztientzako konponbideak aurkitzen. Hala ere, hobetzeko prozesua konplexua da, hainbat eragilek esku hartzen dute, eta ez dago buruturik. Testuinguru horretan, protokolo honek elkarri loturik dauden hiru faktoretan jarri nahi du fokua, emakumeek bizi duten indarkeriari aurre egiten aurrerapausoa ekarriko dutelako eta protokoloa egitea bera motibatzen dutelako. Hauek dira faktore horiek:

- ▶ **Lehenik:** Emakumeek bizi duten indarkeriari aurre egiten esku hartzen dutenen artean **koordinazioa** handitzea, arretak zerbitzuak partekatzen dituelako eta horrek ez ditzan biziraun dutenak berriz biktima bihurtu; izan ere, landa-eremu zabala da gurea (305,5 km<sup>2</sup>) eta askotariko jendea bizi da (20 000 pertsona hamabost udalerritan bereizirik).
- ▶ **Bigarrenik:** **Esku-hartze eredu oso eta homogeneo bat** zehazteko beharra zerbitzu guztietarako. Biziraun dutenen baitan jarriko du arreta eta kontuan izango du arreta ororen helburua emakumeak eta neskek ahalduz dela, edozein baliabide erabilirik egiten dela.
- ▶ **Hirugarrenik:** Udalerri txikiek osatzen duten lurralde honen **berezitasuna** aintzat hartu beharra; udalerrietako batzuk oso landa-ingurukoak dira eta, horregatik, emakumeek bizi duten indarkeria hautematean eta indarkeria horri aurre egitean hauek izan behar dira kontuan:
  - Gizarte-kontrola handiagoa da eta horrek indarkeria estaltzea dakar askotan, beldurratik edo lotsagatik.
  - Zenbait udalerritan biztanleak zaharrak dira eta, horietan, indarkeria kronikoago bihurtu ohi da eta *normaltasunez* onartuago egon ohi da, bikote-harremanean zein bikote-harremanetik kanpo.

- Emakumeek bizi duten indarkeriari aurre egiteko berariaz garatutako zerbitzu publikoen sarea ez da dago hain eskura (beste leku batzuetara mugitzea eskatzen du) eta zenbait zerbitzuetako langileek asko mugitu behar izaten dute.

Nolanahi ere den, mugarri bat alderdi horiek eta protokolo honek landu nahi dituen beste batzuk protokoloa egiteko gida den legedian jasorik egotea, eta horrek legez derrigorrezko egiten ditu, hain zuzen **14/2015 Foru Legean, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoan**, daude jasorik, aurrerantzean EIFL. Lege horretan, emakumeek bizi duten indarkeriari aurre egiteko jarduna koordinatzeko tokiko protokoloak egiteko beharra zehazteaz gain, legea zuzentzen duten oinarriek aitortzen dute beste faktore gehigarriek, hala nola bizilekuak, ezin dutela jarri biktima bere eskubideak eskatzeko desabantailadun posizio batean.

Protokolo hau sinatzen duten toki-entitateek hainbat neurri bultzatu dituzte lehen behar bezala deskribatu diren hiru faktore horiei erantzuteko. Neurri horien artean, sarrera honetan hauek nabarmendu nahi dira:

- Altsasuko udalak, 1998. urtetik, eta Sakanako Mankomunitateak, 2019.etik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko lana bultzatzea erabaki dute, langile tekniko espezializatuak dituzten berdintasun-eremuen bidez. Hori oso esanguratsua da; izan ere, 10 000 biztanletik beherako udalerriak dira, eta Sakanako udalerriek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin duten **konpromiso politikoa** erakusten du, baita berdintasunezko **eskualde-eredu** baterako apustua ere, **zerbitzuak eta ezagutzak erarik eraginkorrean erabil eta parteka daitezten**. Protokolo hau horren isla da.
- 2020. urtean, **Altsasuko Udaltzaingoa VioGen sisteman** sartu zen; VioGen sistema Espainiako Barne Ministerioaren mendeko sistema bat da, Seguratasunerako Estatuko Idazkaritzak kudeatua, genero-indarkeria kasuei jarraipen osoa egiteko. Horrez gain, Altsasuko udalerrian genero-indarkeria bizi duten emakumeei polizia-arreta eskaintzeko lankidetzeta-protokolo bat sinatu zuten.
- 2019. urtean, **diagnostiko kualitatibo** bat egin zen. Diagnostiko hori protokolo honen abiapuntua da, eskualde honetan esku hartzen duten langileek emakumeen aurkako indarkerian duten ikuspegia eta ezagutza jasotzen baititu.
- 2017. urtean, Altsasuko udalak **protokolo jakin** bat egin zuen, **jaiguneetako eraso sexistak saihestu eta haien arreta egiteko**. Festetan horrelako erasoak gertatzen direnean udalerrian erantzun koordinatu eta eraginkor bat ematea zuen helburu.
- 2015. urtean **koordinazio-talde tekniko** bat sortu zen Altsasun, polizia-, osasun- eta gizarte-zerbitzuetarako.
- Aurten bertan Sakanako zenbait udalerrik, hala nola Arbizukoak eta Etxarri Aranazkoak, **ekimen** bat abian jarri dute, emakumeek udalerrri horietan bizi duten indarkeriaren **arreta protokolo bidez egiteko**.

Deskribatutako neurri horiek, beste batzuekin batera, emakumeek Sakanan bizi duten indarkeriaren arreta hobetzen lagundu dute. Hala ere, emakumeen aurkako indarkeriaren erreferentzia den legediak ezartzen dituen betebeharrak ase behar dira. Legediak udalerrri guztiei eragiten die eta, azken urteotako aurrerapen tekniko eta sozialekin batera, koordinazio-protokolo

bat egitea eskatzen die, emakumeek Sakanan bizi duten indarkeriaren arreta osoa eta koordinatua nola egingo den formalki ezartzeko eta lurraldeen arteko oreka bermatzeko.

## **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE-EGITEA KOORDINATZEKO SAKANAKO AKORDIOA**

### **HAUEK BILDU DIRA:**

Javier Ollo Martínez jauna, Altsasuko udalaren ordezkari,  
David Oroz Alonso jauna, Sakanako Mankomunitateren ordezkari,  
Oihana Olaberria Jaka anderea, Arakilgo udalaren ordezkari,  
Francisco Javier Razkin Flores jauna, Arbizuko udalaren ordezkari,  
Gorka Ovejero Gamboa jauna, Arruazuko udalaren ordezkari,  
Egoitz Urritza Lazkoz jauna, Bakaikuko udalaren ordezkari,  
Emeterio Senar Elso jauna, Ergoienako udalaren ordezkari,  
Silvia Maraño Chasco anderea, Etxarri Aranazko udalaren ordezkari,  
Ainhoa Beraza Maiza anderea, Irañetako udalaren ordezkari  
Aitor Larraza Carrera jauna, Irurtzungo udalaren ordezkari,  
Imanol Arbizu Perpiña jauna, Iturmendiko udalaren ordezkari,  
Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza jauna, Lakuntzako udalaren ordezkari,  
Joseba Vizuite Askargorta jauna, Olaztiko udalaren ordezkari,  
Jose Domingo Huarte Baleztena jauna, Uharte Arakilgo udalaren ordezkari,  
David Oroz Alonso jauna, Urdiaingo udalaren ordezkari,  
Olatz Irizar Martinez anderea, Ziordiko udalaren ordezkari,  
Eva Istúriz García anderea, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren ordezkari,  
Monserrat de la Fuente Hurtado anderea, Osasunbidearen ordezkari,  
Gurutze Goikoetxea Barandiaran anderea, Altsasuko osasun-zentroaren ordezkari,  
Gorka Arias Sierra jauna, Etxarri Aranazko osasun-zentroaren ordezkari,  
Javier Fombellida Pulido jauna, Irurtzungo osasun-zentroaren ordezkari,  
Javier Paz Miño jauna, Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitatearen ordezkari,  
Maria Saez de Albeniz Bregaña anderea, Etxarri Aranazko Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitatearen ordezkari,  
Eduardo Murugarren Francés jauna, Irurtzungo Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitatearen ordezkari,

## HAU ADIERAZTEN DUTE:

- 1) Sistema patriarkalean desberdinkeria diskriminatzaileak daude emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeen aurkako indarkeria horren ondorioetako bat da. Indarkeria hori emakume izate hutsagatik bizi dute emakumeek, egiturazkoa da eta, beraz, erantzun publiko egokia jaso behar du.
- 2) Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa ohikoenetako bat egungo gizarte garaikideetan.
- 3) Emakumeek bizi duten indarkeria hainbat modutan agertzen da. 14/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, Emakumeen kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoak, Istanbulgo Hitzarmenarekin bat, emakumeen aurkako indarkeriatako jotzen ditu, besteak beste: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, sexu-indarkeria mota guztiak, feminizidioa, emakumeen eta nesken trafikoa, sexu-esplotazioa, hitzartua edo behartuta ezkonaraztea, emakumezkoen genitalak mutilatzea, baita nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor-kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dauden emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein indarkeria mota.
- 4) Lehen aipatutako Foru Legeak dio emakumeen aurkako indarkeriak, edozein modutan egiten dela ere, kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa dakarztekiela biktimak guztiei.
- 5) Indarkeriazko inguru horretan bizi diren ume, nerabe eta mendekotasuna duten pertsona guztiak ere emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak dira, emakume eta neskez gain.
- 6) Emakumeen aurkako indarkeriak ez du eragin bera indarkeria hori bizi duten pertsona guztien baitan. Izan ere, desgaitasun bat izateak, adinak, nazionalitateak, etniak, lanarekiko harremanak, pobrezia, adikzioek edo umeak izateak, beste aldagai batzuen artean, biktimak are egoera zaurgarriagoan jar ditzakete. Baliabide publikoekin esku hartzen denean, egoera horiek guztiak aintzat hartu behar dira, indarkeria-egoera bakoitza berezia delako.
- 7) Landa-eremuan bizitzeak ezin ditu baliabideen eskuragarritasuna, biziraun duten biktimen segurtasuna edo jasotzen duten arretaren osotasuna baldintzatu.
- 8) Zenbait zerbitzu publiko orokor oso garrantzitsuak dira emakumeek Sakanan bizi duten indarkeria hautemateari dagokionez, hala nola, osasun-zentroak edo oinarrizko gizarte-zerbitzuak, erreferentziazkoak direlako herritar guztiendako. Horregatik, eskualdeko koordinazio-protokolo bat izateak arreta espezializatuagoa izaten, Sakanako zerbitzu guztietan hautematea lehentasuna izaten eta lan-eredua partekatzen laguntzen du; horrela, indarkeria eragiten duten zergatiak ezaguturik, errealitateari hel dakioko.
- 9) Legediak emakumeek bizi dituzten indarkeria-mota guztiekin amaitzeko era koordinatuan esku hartzea behartzen ditu Sakanako erakunde eta entitate guztiak. 14/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, Emakumeen kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoak, ezartzen du indarkeria horri aurre egiteko moduetako bat detekzio, jarduketa eta deribaziorako protokoloak direla. Protokoloek emakumeen aurkako indarkerian egiten den jarduna homogeneoagoa izan dadin jarraibideak jaso behar dituzte, eta sinatzen dituztenek derrigor bete beharko dituzte, aipatutako Foru Legearen arabera.

Gainera, emakumeen aurkako indarkerian esku-hartze koordinatua bermatzeko ardura instituzionala hainbat esparrutako legedian dago jasorik. Jarraian protokolo honetarako esanguratsuenak direnak jaso da:

## **SAKANAN**

- Espainiako Barne Ministerioaren (Segurtasunerako Estatuko Idazkaritza) eta Altsasuko udalaren artean udaltzainak “Genero-indarkeriako Kasuen Jarraipen Osoko Sistema”n sartzeko (2020).
- Altsasuko udal-protokoloa jaiguneetan eraso sexistak saihestu eta haien arreta egiteko (2017).
- Arbizuko eta Etxarri Aranazko udal-protokoloak indarkeria matxista kasuak hartzeko (2015).

## **AUTONOMOMIA-ERKIDEGOAN**

- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa.
- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.

### **► Beste araudi eta egitarau batzuk:**

- Poliziaren prozedura, emakumeek Nafarroan bizi duten indarkeriari aurre egiteko eskualdeko koordinazio-protokoloei atxikia (Guardia Zibila, Espainiako Polizia Nazionalea eta Foruzaingoa) (2020).
- Erakundeen arteko III. Akordioa emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko (2017).
- Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak diren emakumeen eta neskendako koordinazio- eta jarduketa-protokoloa (2016).
- Emakumeen genitalen mutilazioaren kontrako Nafarroako saiheste- eta jarduketa-protokoloa (2013).
- Udaletako berdintasun-lana planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko Nafarroako Gobernuaren Ibilbidea (2015).

## **ESTATUAN**

### **► Estatuko legeak:**

- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuaren ingurukoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurrean Babes Osoa Eskaintzeko Neurrien ingurukoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

► **Beste araudi batzuk:**

- 4/2019 Instrukzioa, Segurtasunerako Estatuko Idazkaritzarena, zehazten dituena poliziak genero-indarkeria jasateko arrisku-maila nola neurtu behar duen, biktimen segurtasuna nola kudeatu behar duen eta genero-indarkeriako kasuen jarraipen osoko sistemaren bidez (VioGen sistema) kasuak nola jarraitu behar dien.
- Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Ituna (2017).

**EUROPAN ETA NAZIOARTEAN**

- Europako Kontseiluaren Hitzarmena emakumeen kontrako eta indarkeria etxeko indarkeria saihesteko eta indarkeria horiei aurre egiteko moduen ingurukoa. Istanbulgo Hitzarmena (2011).
  - Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda (Garapen Jasangarrirako Helburuak) (2015).
  - Emakumearen inguruko Beijinggo Munduko Konferentzia (1995) eta Beijinggo Adierazpena eta Plataforma, New Yorken 2020an berrikusi eta berretsia (Pekin+25).
  - Emakumezkoaren kontrako Diskriminazio-modu guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) (1979koa eta Espainiak 1983an berretsia).
- 10)** Emakumeen Aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Jarduketa Koordinatzeko Sakanako I. Lurralde-protokoloa egitea beharrezko bihurtu dute deskribaturiko legediak, baita hobekuntza teknikoek eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean gizartean gertatu diren aldaketek ere.

Horregatik guztiarengatik, protokoloa sinatzen dutenek, dagokien erakundea ordezkatzuz,

**ADOSTU DUTE:**

- 1.** Emakumeen Aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Jarduketa Koordinatzeko Sakanako I. Lurralde-protokoloa sinatzea. Sinatzaileek emakumeen aurkako indarkerian dituzten eskumenen errespetutik abiatzen da protokoloa, eta lurraldeko lankidetzaren eta komunikazio-mekanismo bat da; horri esker, emakumeen aurkako indarkeriaren erantzuna diziplinartekoa, espezializatua eta homoginoa izango da Sakanan eta genero-ikuspegia hartuko du barnean.
- 2.** Protokoloan ordezkaturiko baliabideek egiten duten esku-hartzearen bidez, lurraldeko garapen-eredu berdinzale bat garatzen laguntzea, landa-eremuan bizitzea ez dadin beste bereizkeria-faktore bat izan emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik ateratzen diren biktimendako.
- 3.** Protokoloan ordezkaturiko zerbitzuen arreta EIFLk jasotzen dituen printzipio hauekin bat eginarazten joatea: Giza Eskubideen errespetu, babes eta sustapenarekin, “arreta egokia” izeneko printzipioarekin, genero-ikuspegia eta bitartekaritzaren berariazko debekuarekin, diskriminazioaren debekuarekin, askotariko diskriminazioari arreta ematearekin, erantzun integral edo oso eta koordinazioarekin, begirunearekin eta birbiktimizaziorik ezarekin, erantzukizunarekin, eta biziraun duten biktimek emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatzeko zerbitzu eta politika publikoak diseinatzean eta ebaluatzean parte-hartzearekin.

4. Protokoloan ordezkaturako zerbitzuetako langileak emakumeen aurkako indarkerian eta berdintasunean gaitzen direla bermatzea, emakumeek beren eskubideak benetan jasotzen dituztela ziurtatzeko ardura dutenek ongi jardun dezaten, esku-hartzearen helburua emakumeak eta neskek ahalduntzea dela aintzat harturik.
5. Udalerriko zerbitzu publikoak biktimen esku egoten eta haien beharretara moldatzen laguntzea, biktimek, nahi ez badute eta posible bada, beren eskubidea den arreta bertan jasotzeko, emakumeen aurkako indarkerian espezializatuak diren kanpoko beste zerbitzu batzuetara jo gabe.
6. Behar beste baliabide material eta tekniko eta giza baliabide ematea, protokoloa ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, baita ezartzen diren lan-programekiko konpromisoa hartzea ere.
7. Eskualdeko Koordinazio-mahaia bat sortuko da, aurrerantzean EKM, onartzen eta indarrean jartzen denetik, protokoloa gehienez ere bi hilabeteko epean ezartzeko, eta jarraipena egiteko eta ebaluatzeko. Mahaia jarduna koordinatzeko, elkarlanean aritzeko eta protokoloa garatzeko ingurua izango da, eta horrek emakumeen aurkako indarkeriari Sakanan ematen zaion erantzuna hobea eta egokiagoa izan dadin lagunduko du.

Eskualdeko Koordinazio-mahaia hauek osatuko dute:

- ▶ Altsasuko udaleko berdintasun-zerbitzuak.
- ▶ Sakanako Mankomunitateko berdintasun-zerbitzuak.
- ▶ Foruzaingoak (Altsasuko polizia-etxea).
- ▶ Altsasuko Udaltzaingoak.
- ▶ Altsasuko Guardia Zibila
- ▶ Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateak.
- ▶ Etxarri Aranazko Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateak.
- ▶ Irurtzungo Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateak.
- ▶ Genero-indarkeriaren Biktimentzako Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko Arreta Osoko Taldeak.
- ▶ Altsasuko osasun-zentroak.
- ▶ Etxarri Aranazko osasun-zentroak.
- ▶ Irurtzungo osasun-zentroak.
- ▶ Sexu- eta ugaltze-osasunari arreta egiteko Etxarri Aranazko zentroak (CASSYR)

Eskualdeko Koordinazio-mahaiaren zuzendaritza eta idazkaritza Altsasuko udaleko berdintasun-sailak eta Sakanako Mankomunitateko berdintasun-zerbitzuak izango dituzte txandaka. Eskualdeko Koordinazio-mahaiko kide den zerbitzu edo entitate bakoitzak pertsona bat aukeratuko du Mahaiaren ordezkari dezan.

8. Eskualdeko Koordinazio-mahaia funtzio hauek izango ditu:

- a) Protokolo hau eta bere lan-prozedurak ezagutzea, jendarteratzea eta ezartzea, alorka eta bere eskumenetatik abiatuta.
  - b) Emakumeen aurkako indarkeriak hartzen dituen forma eta bide guztiei era bateratu eta koordinatuan erantzuteko irizpideak finkatzea, datu pertsonalak babesteko legedia eta beste protokolo-ereduak uneoro betez.
  - c) Koordinazioa hobetzeko balizko hobekuntzak identifikatzea eta beharrezkotako jotzen diren moldaketak gehitzea edo proposatzea.
  - d) Nafarroan indarrean dagoen Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Erakundearen Arteko Akordioa betez, Nafarroako Berdintasunerako Institutuari (INAI/NABI) Sakanan identifikatzen diren intzidentzien berri ematea. Informazio horren berri emango zaie, halaber, intzidentzia egitea eragiten duten errekurtsoen erakunde titular edo ordezkariari. Intzidentziak, deribatuak izateko, arrazoituak egon behar dira eta EKMren hiru laurdenek babestu beharko dute gutxienez (ordezkatutako zerbitzu bakoitzak boto bat izango du).
  - e) Urteko txosten bat egitea, emakumeen kontrako indarkeriak Sakanan duen eraginaren inguruan. Txostena protokoloa sinatzen duten zerbitzuetako bakoitzak emandako aldizkako informaziotik abiatuta egingo da, eta informazioa tratatzeko irizpide estatistiko homogeenok erabiliko dira.
  - f) Bi urteko lan-planak egitea eta onartzea, protokoloa betetzeko gutxika martxan jarriko diren jardunak planifikatzeko.
  - g) Protokoloaren markoan egindako lanaren urteko txostena protokoloa sinatzen dutenei helaraztea, baita emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez garrantzitsuak diren beste erakundeei ere.
9. Eskualdeko Koordinazio-mahaiak gutxienez ohiko bi lan-bilkura egingo ditu urtean. Horrez gain, bilkura bereziak ere egin ahalko ditu, zuzendaritzak edo Mahaia osatzen dutenen bi herenek eskaturik. Kasu horretan, eskaera idatziz egingo da eta landu beharreko gaien proposamen arrazoitua jasoko du. Zuzendaritzak bilkura berezia deituko du, eskaera aurkeztu zenetik hamabost eguneko epean gehienez; gai-zerrendak eskatutako gaiak jasoko ditu derrigor eta zuzendaritzak, nahi izanez gero, beste batzuk gehituko ditu.
10. Lantalde teknikoak deitu ahalko dira Eskualdeko Koordinazio-mahaiari laguntzeko eta beste ikuspegi batzuk eskaintzeko. Lantalde horiek lan-programen eta protokoloaren markoan identifikatutako beharren arabera sortuko dira. Protokoloan hainbat udalek parte hartzen dutenez, lantaldeak lekuan lekukoak izan daitezke, Sakanako eskualderen batean arreta handiagoa jartzeko.
11. Altsasuko udalak eta Sakanako Mankomunitateak, beren berdintasunerako udal-zerbitzuen bidez, aurrekontu jakin bat jarriko dute protokoloarendako. Protokoloaren sinatzaileek beren aurrekontuetatik ordainduko dituzte bi urteko lan-programetako ekintzak.
12. Horrez gain, hamabost udalek bermatuko dute udalerrietan gerta daitezkeen larrialdietarako aurrekontua nahikoa dela. Nagusiki emakumeen eta haien seme-alaben bizitza arriskuan dagoen kasuetarako izango da, baita bizirauten duten emakumeak udalerrian ez dituen emakumeen kontrako indarkeriako baliabide espezializatueta eramateko ere. Aurrekontu hori Altsasuko eta Sakanako Mankomunitateko berdintasun-zerbitzuek kudeatuko dute.

**13.** Protokoloa sinatzean, benetan bete dadin lan egingo dute aktiboki sinatzaileek.


Protokoloa sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta mugagabea izango da. Protokoloa bi urtean behin berrikusiko da eta zertan den kanpotik ebaluatuko da lau urtean behin.

Aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, akordioa sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

### SINADURAK

Javier Ollo Martínez jauna	Altsasuko udala	
David Oroz Alonso jauna	Sakanako Mankomunitatea	
Oihana Olaberria Jaka anderea	Arakilgo udala	
Francisco Javier Razkin Flores jauna	Arbizuko udala	
Gorka Ovejero Gamboa jauna	Arruazuko udala	
Egoitz Urritza Lazkoz jauna	Bakaikuko Udala	
Emeterio Senar Elso jauna	Ergoienako udala	
Silvia Marañon Chasco anderea	Etxarri Aranazko udala	
Ainhoa Beraza Maiza anderea	Irañetako udala	
Aitor Larraza Carrera jauna	Irurtzungo udala	
Imanol Arbizu Perpiña jauna	Iturmendiko udala	
Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza jauna	Lakuntzako udala	

Joseba Vizuite Askargorta jauna	Olaztiko udala	
José Domingo Huarte Baleztena jauna	Uharte Arakilgo udala	
David Oroz Alonso jauna	Urdiaingo udala	
Olatz Irizar Martinez anderea	Ziordiko udala	
Monserrat de la Fuente Hurtado anderea	Osasunbidea	
Gurutze Goikoetxea Barandiaran anderea	Altsasuko osasun-zentroa	
Gorka Arias Sierra jauna	Etxarri-Aranazgo osasun-zentroa	
Javier Fombellida Pulido jauna	Irurtzungo osasun-zentroa	
Javier Paz Miño jauna	Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetako mankomunitatea	
Maria Sáez de Albeniz Bregaña anderea	Etxarri Aranazko Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitatea	
Eduardo Murugarren Francés jauna	Irurtzungo Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitatea	
Eva Isturiz García anderea	Nafarroako Berdintasunerako Institutua	



Emakumeen kontrako indarkeriaren arreta Sakanan normaltzeko eta homogeneousizatzeko, atal honetan Sakanako gizarte-, polizia- eta osasun-zerbitzuekin lotutako arreta bideratzeko jarraibideak aurkeztuko dira. Alde horretatik, Sakanan egingo den indarkeriaren aurkako lurraldeko arreta-eredua zehazten du protokoloak eta edukien segida hau du:

- ▶ Protokoloak landuko duen emakumeen kontrako indarkeria mugatzea, EIFLk biltzen dituen indarkeria-mota eta -bide guztiak onartzetik hasita.
- ▶ Protokoloa sinatzen dutenen jarduna bideratu behar duten jarraibide orokorrak, arreta koordinatua eta espezializatua izan dadin eta genero-ikuspegia izan dezan.
- ▶ Koordinazio-prozedura jakinak gizarte-, polizia- eta osasun-zerbitzuetarako. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean, arretak osoa izan behar du, hainbat esparrutan esku hartu behar da eta guztiak ere oso garrantzitsuak dira. Hala ere, protokoloan sartu beharreko prozedurak identifikatzeko irizpidea izan dira Sakanako zerbitzuei eragitea edo protokoloa sinatzen duten udalek horren kudeaketan eskumenak izatea.

## 2.1. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA SAKANAKO PROTOKOLOAN

Protokoloan indarkeria eta haren forma eta agerpen guztien esku-hartzea, baita emakumeen kontrako indarkeriari dagokion informazioaren tratamendua ere, 14/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoak, ezarritakoarekin bat egin da. Protokoloak emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko ezagutza zabaltzen lagun dezan, jarraian deskribatu dira zer den emakumeen kontrako indarkeria, zer mota eta agerpen dituen eta protokoloak zer indarkeriari erantzutea duen lehentasuna.

### A) EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA, BIZIRAUN DUTENAK ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK

- ▶ **Emakumeen kontrako indarkeria edo genero-indarkeria:** Emakumeen kontra egiten den indarkeria da, eta gizarte patriarkal guztietan emakume izate hutsagatik bizi duten bereizkeriaren ondorio da, gizarte patriarkaletan emakumeen eta gizonen arteko harremanak desorekatuak eta hierarkikoak baitira. Indarkeria horrek hauek dakartza edo ekar ditzake berekin: kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa, mehatuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne harturik, bizitza publikoan nahiz pribatuan. Neska eta neskato adingabeak ere izan daitezke indarkeria horren biktimak edo indarkeria horri biziraun diotenak.
- ▶ **Biziraun dutenak:** Indarkeriari biziraun diotenak emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak dira eta jasandako indarkeria-prozesua gainditzeko oneratzeko-prozesuari ekin diote. Indarkeria horren biktima zuzenak edo biziraun dutenak dira, halaber, biktimak diren emakumeen seme-alabak.

- ▶ **Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak:** Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak dira indarkeriaren ondorioak zuzenean edo beren baitan pairatu dituzten emakumeak, neskak eta neskatoak, baita indarkeria eragiten den inguruan bizi diren seme-alabak eta indarkeriaren eraginpean dauden mendeko beste pertsona batzuk ere.

## **B) INDARKERIA-MOTAK: FISIKOA, SEXUALA, PSIKOLOGIKOA ETA EKONOMIKOA**

### **INDARKERIA FISIKOA**

Emakumearen gorputzaren kontrako indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisikoa edo mina eragiten duena edo eragin dezakeena.

### **INDARKERIA PSIKOLOGIKOA**

Edozein jokabide, ahozkoa nahiz ez ahozkoa, emakumearen baitan oinaze, gutxiespen, bakartze motaren bat edo askatasuna mugatzea eragiten duena, hala nola mehatxuak, behartzeak, umilazioak edo laidoak, menpekotasuna eskatzea, jazarpena, hertsapena edo irainak.

### **INDARKERIA EKONOMIKOA**

Emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa.

### **INDARKERIA SEXUALA**

Baimendu gabeko edozein sexu-ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu-harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.

## **C) EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AGERPENAK**

**Emakumeen kontrako indarkeriatako** jotzen dira:

### **INDARKERIA BIKOTEAN EDO BIKOTE OHIAN**

Indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak eraginik, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurren baitan duen eragina barne harturik.

### **SEXU-INDARKERIAREN AGERPENAK**

Emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeriak barruan hartzen ditu sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena lanean edo hezkuntzan eta sexu-abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.

### **FEMINIZIDIOA**

Bikotean edo bikote ohian eginiko homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, ohoreagatiko hilketak, nesken infantizidioa eta ezkonsariagatiko hilketak.

### EMAKUMEEN ETA NESKEN SALEROSKETA

Emakumeak eta neskak erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne harturik pertsona horien gaineko kontrola trukitzea edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere-abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanez edo jaso, helburua delarik sexu-esplotazioa, laneko esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.

### SEXU-ESPLATAZIOA

Finantza-onurak edo bestelakoak lortzea emakumearen prostituzioaren bidez, sexu-mendekotasunaren bidez edo beste sexu-zerbitzuen bidez, pornografia-ekintzak edo pornografia egitea barne, horretarako indarkeria erabiliz, beldurra eraginez, iruzur eginez edo nagusitasun- edo biktimaren zaurgarritasun-egoeraren bat erabiliz.

### GAZTEEGITAN EZKONTZEA, EZKONTZA HITZARTUA EDO BEHARTUA

Baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupearan edo bortxaz egiten delako, edo emakumea baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako.

### EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA

Emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.

### BESTE EDOZEIN INDARKERIA

Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeena, eta nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor-kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko legedian aurreikusirik dagoena.

## D) PROTOKOLOAN EMAKUMEEN KONTRAKO ZER INDARKERIARI ERANTZUN NAHI ZAION

Azaldutako definizioetatik eta kontzeptuetatik abiatuz eta protokoloa sinatzen duten zerbitzuek emakumeen kontrako indarkeriari heltzeko, protokolo lan-prozedurek **bikoteko edo bikote ohiko indarkeria eta sexu-indarkeriaren agerpen** kasuetarako arreta baino ez dute deskribatzen. Indarkeria-agerpen horiek **inguru publikoan** (lanean, hezkuntzan, kirolean, aisian eta jaiguneetan, eta inguru birtualean, besteak beste) **zein pribatuan** (etxean eta senitartean) gertatzen dira, eta indar handienekoak izaten dira, udalerrietako baliabide publikoetatik eta

eskura dagoen informazio estatistikotik jakin daitekeenaren arabera (informazio hori Sakanan egindako atestatuetatik eta eskualdean dauden arreta oso eta espezializatuko zerbitzuetan eskainitako arretatik ateratzen da).

Protokoloak emakumeen kontrako zenbait indarkeriatan jartzen du fokua, baina horrek ez die garrantzirik kentzen atal honetan aipatutako beste agerpenei, eta ez ditu estali nahi. Beste indarkeria mota horiek arreta espezifikoa behar dute eta horietarako Nafarroako beste protokolo-eredu batzuk jarraituko dira (adibidez, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak diren emakume eta nesken arretarako koordinazio- eta jarduketa-protokoloa, edo emakumeen genitalen mutilazioa Nafarroan saihesteko eta arreta egiteko protokoloa). Gainera, protokoloa lan-tresna malgu bezala ulertzen da eta, horregatik, hobekuntzak egin daitezke Sakanan ikusten diren aldaketa eta beharren arabera.

## 2.2. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARRETA EGITEKO JARRAIBIDE OROKORRAK PROTOKOLOA SINATZEN DUTEN ZERBITZUENDAKO

Protokoloa sinatzen duten zerbitzuek EIFLk zehazten duen ikuspegitik egingo dute arreta. EIFLren arabera, emakumeen kontrako indarkerian egiten den esku-hartzea printzipio hauek bideratu behar dute: **Giza Eskubideen errespetuak, babesak eta sustapenak, “arreta egokia” printzipioak, genero-ikuspegiak eta bitartekaritzaren berariazko debekuak, diskriminazioaren debekuak, askotariko diskriminazioari arreta emateak, erantzun oso eta koordinatuak, begiruneak eta birbiktimaziorik ezak, erantzukizunak eta partaidetzak**. Printzipio horiek osatzen duten esku-hartze markoak jarraibide orokor hauei jarraituko diete eta protokoloa sinatzen duten zerbitzuek bere egingo dituzte etengabe eta era mailakatuan (zerbitzu bakoitzaren jarraibideak esparrukako esku-hartze prozeduretan jasoko dira):

### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK SAKANAKO ZERBITZU PUBLIKOEN ARRETAREN ERDIGUNEAN

#### 1. GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA, BABESA ETA SUSTAPENA, ETA “ARRETA EGOKIA”

- ⇒ Bizirauten duten biktima guztien bizitzeko eskubidea, osotasun fisikoa eta mentala izateko eta osotasunean harremantzeko eskubidea eta osasunerako eskubidea babestera eta sustatzera zuzenduko da arreta.
- ⇒ Arreta norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legediaren arabera egingo da.
- ⇒ Biktimak, beren seme-alabak eta mendeko beste pertsona batzuk arriskuan jartzea saihestuko dute zerbitzu guztiek.
- ⇒ Biktimen egoera eta beharrak kontuan hartuko dira eta, prozesu bakoitza berezia dela eta bere eboluzioa duela ulerturik, esku hartzeko proposamena errealitate bakoitzari egokituko zaio. Kontuan izango da eta errespetatuko da emakumeek ez dutela kasu guztietan salatu nahi edo ezin dutela salatu.
- ⇒ Biktima guztien intimitatea errespetatuko da, udalerrri txikietan batez ere, guztiek elkar ezagutzeak indarkeria agerikoa ez izaten, estaltzen eta *lotsaz* bizitzen laguntzen duelako.
- ⇒ Biktimek zerbitzu bakoitzak egiten duen esku-hartzeko proposamenaren inguruan duen iritzia aintzat hartuko da, haien erabakiak errespetatuko dira, ez dira haien esanei aurre egingo, eta epaiketak eta estereotipoetan oinarritutako iritziak saihestuko dira. Beren prozesuen inguruko alderdi guztien berri emango zaie biktimei, ulertzeko moduan, eta

	<p>protokoloa sinatzen duten beste baliabide batzuekin koordinatzeko baimena jasoko zaie.</p> <p>⇒ Emakumeen kontrako indarkeria aldagai transbertsal bezala gehituko dute zerbitzu orokor guztiek egiten dituzten esku-hartze guztietan.</p>
<b>2.</b>	<b>GENERO-IKUSPEGIA</b>
	<p>⇒ Bizirauteen duten biktimak dira beren prozesuen protagonistak.</p> <p>⇒ Biktimen arreta haien hiritartasun-eskubideak babestuz egingo da, hau da, beste edozein pertsonaren parekoak direla onartuz. Beraz, behar den laguntzaz, gai dira bizi dituzten mendekotasun-harremanak aldatzeko eta hausteko prozesuei autonomiaz aurre egiteko, eta harreman horiek ez dira zerbitzuen arretan errepikatu behar.</p> <p>⇒ Arreta asistentzialista saihestuko da, hau da, alde bakarrekoa den, mendekotasuna sortzen duen eta emakumeei autonomia kentzen dien arreta saihestuko da.</p> <p>⇒ Zerbitzu aintzat izango dute emakumeek ez dutela berariaz adierazten indarkeriari aurre egiten ari direla, landa-eremuan indarkeria zer esango ote duten beldurrez bizi dutela, ahoz gora esateko eta bere izenez deitzeko zailtasunak dituztela edo normaltzat jotzen dutela batez ere kronifikaturik badago, edo ez direla indarkeria hori bizi dutenik kontziente izaten. Horregatik, indarkeria-susmoren bat dagoenean, egoera azaltzen laguntzen duten galderak egingo dira eta kasuari gertuagotik erreparatuko zaio. Halaber, behar denean espezializatuago dauden beste zerbitzu batzuen laguntza eskatuko da, hala nola Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIVrena (Genero-indarkeria jasandako pertsonentzako arreta integraleko taldea).</p> <p>⇒ <b>Emakumeak, neskak eta neskatoak ahalduz daude protokoloa sinatzen duten zerbitzu guztien arreta-prozesuaren helburua eta jomuga.</b></p>
<b>3.</b>	<b>BITARTEKARITZAREN BERARIAZKO DEBEKUA</b>
	<p>⇒ Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria dela eta, legez debekaturik dago biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza emakumeen kontrako indarkeria kasuetan (familiarren bitartekaritza, bikoteko terapia, zigor-bitartekaritza, etab.). Protokoloa sinatzen duten zerbitzuetako batek ere ez du emakumeen kontrako indarkeria kasurik bitartekaritzaren bidez konpon dadin sustatuko, justifikatuko, bultzatuko edo bilatuko.</p>
<b>4.</b>	<b>DISKRIMINAZIOAREN DEBEKUA ETA ASKOTARIKO DISKRIMINARIOARI ARRETA EMATEA</b>
	<p>⇒ Emakumeen kontrako indarkeria-kasuen lehen arreta ahalik eta lasterren egingo da, berehala egingo da kasu larri eta premia-koetan, eta, ahal dela, aurrez aurre egingo da. Emakumeek zerbitzuak erabiltzeko eta horietan parte-hartzeko administrazio-izapideak azkartzea eta murriztea bilatuko dute protokoloa sinatzen duten zerbitzuek.</p> <p>⇒ Bakarka eta horretarako egokiak diren lekuetan egingo zaie arreta emakumei. Biziraun dutenen arreta ez da seme-alaben aurrean egingo. Seme-alabak eta mendeko beste pertsona batzuk indarkeriaren biktima zuzenak dira eta arreta egoera horretara moldatuko da; elkarrizketak bideratuak izango dira eta gunere bereizi eta egokiak bilatuko dira emakumei arreta egiten zaien bitartean itxaron dezaten.</p> <p>⇒ Langile bakoitzak bere zerbitzuan egingo du arreta, bere eskumenetatik abiatuz, eta bikoiztasunak eta kontraesanak dauden mezuek saihestuko dira. Arreta juridikoa eta salaketak egitearekin loturiko gai guztiak udaletako lege-zerbitzuek emango dituzte; EAZk ere egin ahal du, horretarako eredu-zerbitzu publikoak baita (EAZ Emakumeen Arreta Juridikorako Zerbitzua da, gaztelaniaz <i>SAM, Servicio de Atención Jurídica a las mujeres</i>).</p> <p>⇒ Hainbat aldagaik emakumeek bizi duten indarkeriaren zaurgarritasuna handitu dezakete; adibidez, hizkuntzak, erlijioak, egoera edo ahalmen ekonomikoak, sexu-orientazioak, jatorri etnikoak, heziketa-mailak, adinak, osasun-egoerak, desgaitasunak, migratzailea izateak edo erresidentziaren egoera administratiboak. Horietako bat ere ez da izango emakumeak diskriminatze arrazoia.</p> <p>⇒ Emakumeak langileekin beren ohiko hizkuntzan komunika daitezela bilatuko da eta</p>

	<p>horretarako baliabideak jarriko dira.</p> <p>⇒ Ulertzeko moduko hizkera erabiliko da biktimekin eta, beharrezkoak ez badira, teknizismoak saihestuko dira, batez ere gai juridikoei dagokienez.</p>
<b>5.</b>	<b>ERANTZUN OSOA, KOORDINAZIOA ETA BIRBIKTIMIZAZIOARIK EZA</b>
	<p>⇒ Protokoloa sinatzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa derrigorrezkoa da, baita beharrezko baldintza bat ere, esku-hartzea eraginkorra izan dadin eta emakumeak, neskek eta neskatok ez birbiktimizatzeko.</p> <p>⇒ Zerbitzu bakoitzak eskaintzen duen arreta esku-hartze osoko prozesu baten parte bezala ulertuko da (saihestea, babesa, laguntza, konponbidea eta justizia sustatzea); prozesua ez dago atal itxitan banaturik, hainbat diziplinari eragiten dio eta, zein bere eskumenetatik, Sakanako zerbitzu espezializatu guztien koordinazioa eskatzen du.</p>
<b>6.</b>	<b>ERANTZUKIZUNA</b>
	<p>⇒ Protokoloa sinatzen duten zerbitzuek haien langile guztiak genero-berdintasunean eta emakumeen kontrako indarkerian prestatzeko prozesuak ezarriko dituzte, guztiek ere era egokian esku har dezaten.</p>
<b>7.</b>	<b>PARTAIDETZA</b>
	<p>⇒ Sustatuko da emakumeek protokoloa eta protokoloa sinatzen duten zerbitzuek egindako arreta baloratzen eta ebaluatzen parte har dezaten. Haien iritzia protokoloa eta baliabideak baterago joan daitezen lagunduko du.</p>

### 2.3. JARDUKETA-PROZEDURA ESPARRUAREN ARABERA

FITXA TEKNIKOA	
<b>PROZEDUREN HELBURUA</b>	Jarraibideak ematea protokoloa sinatzen duten zerbitzuek berak elkarren artean koordinatzeko, baita Sakanan dauden emakumeen kontrako indarkeriaren arreta egiteko beste baliabideekin koordinatzeko ere.
<b>EREDUZKO ARAUDIA</b>	<p>⇒ Protokoloko akordioan aipatutakoa.</p> <p>⇒ Poliziaren kasuan, hau da erreferentziazko prozedura: “Poliziaren esparruko prozedura, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean Nafarroan jarduteko eskualde-protokoloei erantzen zaiena”.</p> <p>⇒ Protokoloan deskribatutako prozedurek ez dituzte Nafarroako Foru Komunitateko erreferentziazko beste prozedura-eredu batzuk ordezkatzeko. Hainbat esparrutako Nafarroako eta Sakanako koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko arau eta akordioak zehazten dituzte, eta hobetzeko gauzak dituzten alderdietan jartzen dute arreta.</p>
<b>PROZEDUREK ZER ZERBITZU DUTEN HELBURU</b>	<b>Sakanan bizi diren</b> emakumeak dira, beren seme-alabekin eta mendeko beste pertsona batzuekin batera, protokoloa sinatzen duten eta emakumeak hartzen dituzten beste zerbitzuek egiten dituzten prozeduren azken helburu eta onuradunak (prozeduretan erasotzaileak deribatzen jarraibideak ere adierazten dira). Zerbitzuen arreta izateko ez da Sakanako udalerrri batean erroldaturik egon behar.
<b>PROZEDURA-MOTAK ETA EDUKIAK</b>	⇒ Hiru esparruetan esku hartzeko prozedurak: gizarte-zerbitzuetan, polizia eta osasun-zerbitzuetan.

	<p>⇒ Edukia: Erreferentziazko langileak gaitzea, espazioen ezaugarriak eta hornikuntza, esparru bakoitzeko zerbitzuen arreta, esparru bakoitzeko zerbitzuen arteko koordinazioa, eta baliabide bakoitzeko zerbitzuen eta beste baliabide batzuen arteko koordinazioa.</p>
<p><b>INTZIDENTZIEN KUDEAKETA</b></p>	<p>Protokoloaren akordioan adostutakoaren arabera hautemango eta izapidetuko dira intzidentziak.</p>



## **2.3.1. JARDUKETA-PROZEDURA GIZARTE- ZERBITZUETAN**

## 2.3.1. JARDUKETA-PROZEDURA GIZARTE-ZERBITZUETAN

### A) PROZEDURA ZER ZERBITZUTARAKO DEN ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAN EGITEN DUTEN ARRETAREN EZAUGARRIAK

ZERBITZU HAUETARAKO	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>⇒ Altsasuko udaleko berdintasun-sailerako /-zerbitzurako.</li> <li>⇒ Sakanako Mankomunitateko berdintasun-sailerako / -zerbitzurako.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>⇒ Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateko.</li> <li>⇒ Etxarri Aranazko Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateko (Arbizu, Bakaiku, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Lakuntza eta Urdiain).</li> <li>⇒ Irurtzongo Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateko (Irurtzun, Arakil, Uharte Arakil, Irañeta eta Arruazu)</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>⇒ Genero-indarkeriaren Biktimentzako Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko Arreta Osoko Taldeak.</li> </ul>
ZERBITZUEN EZAUGARRIAK	
<b>Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Emakumeen kontrako indarkeria-kasuak hautematea, lehen arreta egitea eta baliabideen eta izapide administratiboen inguruko informazioa era ulergarrian ematea.</li> <li>▶ Kasuak espezializaturik dauden beste baliabide batzuei helaraztea (Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIvri).</li> <li>▶ Gizarte-arreta edo arreta psikologikoa ematea, protokoloan jasotzen den moduan (horrelako arreta eskaintzeko aukera duten mankomunitateetan).</li> <li>▶ Beste zerbitzu batzuetara laguntzea, publikoak, udalekoak edo udalaz gaineakoak izan, egoera larria denean edo biktima zaurgarriagoa denean (adibidez, hizkuntzagatik).</li> <li>▶ Genero-indarkeriaren Biktimen Arretarako eta Babeserako Telefono-zerbitzua kudeatzea (ATENPRO).</li> <li>▶ <b>Ordutegia:</b> Goizez, astelehenetik ostiralera egoitza nagusietan (Altsasu, Etxarri Aranatz eta Irurtzun. Sakanako hainbat udaletxetan ere aurrez aurreko arreta egiten da.</li> </ul> <p>Sarbidea zuzena da eta hitzaurrea behar du, eskaturik edo beste zerbitzu batek helarazirik (kasu larrietan izan ezik, horietan arreta berehalakoa baita).</p>
<b>Berdintasun-sailak / -zerbitzuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Protokoloaren koordinazio orokorra eta aholkularitza.</li> <li>▶ Emakumeen kontrako indarkeria udal guztietako eta Sakanako Mankomunitateko genero-<i>mainstreaming</i> estrategietan: udal-izapide eta -kudeaketetan indarkeria ezagutzea (zergen eta ordainketen etxeratzean, esaterako), udal-zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzak (hala nola igerilekuak eta kiroldegiak), biktimak espezializatutako beste zerbitzu publikoetara eramatea, etab.</li> <li>▶ <b>Lege-aholkularitza (Altsasuko udala):</b> Emakumeei eta langileei</li> </ul>

	<p>lege-aholkularitza eskaintzea eta kasuak deribatzea, protokoloan zehaztu diren moduetan. Hitzorduarekin egiten du arreta (hilean behin).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Ordutegia:</b> Goizez. Sarbidea zuzena da, eskaturik edo beste zerbitzu batek helarazirik.</li> </ul>
<p><b>Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIV</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Arreta espezializatua eta osoa</b> emakumeen kontrako indarkeriaren biktimendako, osatze-prozesu osoan, gizarte- eta heziketa-gaietarako, arreta psikologikorako eta arreta juridikorako (EAZren bidez).</li> <li>▶ Bizirauten dutenen <b>seme-alabendako heziketa-arreta eta arreta psikologiko espezializatuak.</b></li> </ul> <p>Kode Zibileko 156. artikularekin bat, <i>“Zigor-epai bat ematen denean eta zigor-ardura amaitzen ez denean edo, seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun edo -ukigabetasunaren kontra eraso egiteagatik, gurasoetako baten aurka zigor-prozedura bat hasten ez denean, gurasoa behar bezala informatu ondoren, guraso baten baimena nahikoa izango da adingabeko seme-alabei arreta eta laguntza psikologikoa emateko. Laguntza jasoko duen seme-alabak hamasei urtetik gora badu, berak ere berariaz baimendu beharko du laguntza.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Beste zerbitzu batzuetara laguntzea, publikoetara, udalekoetara zein udalaz gainekoetara.</li> <li>▶ Sakanako langileendako aholkularitza espezializatua.</li> <li>▶ <b>Ordutegia:</b> Goizez eta arratsaldez, astelehenetik ostiralera. Sarbidea zuzena da, eskaturik edo beste zerbitzu batek helarazirik.</li> <li>▶ Edozein kasutan, lehen hitzordua eskaera jaso eta gehienez ere bi eguneko epean izango da.</li> <li>▶ <b>EAIV emakumeen erreferentziazko udalerrira mugituko da arreta egitera.</b></li> </ul>

## B) SAKANAN ERA KOORDINATUAN JARDUTEKO PROZEDURA

<p><b>GIZARTE-ZERBITZU GUZTIETAN:</b></p>
<p><b>ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK IZENDATZEA</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>⇒ Gizarte-zerbitzu bakoitzak <b>erreferentziazko pertsona bat</b> izendatuko du emakumeen kontrako indarkeria-kasuen arretarako (oinarrizko gizarte-zerbitzuak) eta esparruko beste zerbitzuen koordinazio teknika egiteko.</li> <li>⇒ OGZetan, erreferentziazko pertsona gizarte-langile bat izatea hobetsiko da.</li> </ul>
<p><b>EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAN PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>⇒ Erreferentziazko pertsonak berdintasunean eta emakumeen kontrako indarkerian prestakuntza espezializatua izango edo jasoko dute, ahal dela unibertitate batek edo</li> </ul>

erakunde publiko batek emanik. Prestakuntza hori gutxienez 120 ordukoa izatea gomendatzen da.

- ⇒ Pertsonekin zuzenean aritzen diren langile guztiek, baita langile administratiboek ere, emakumeen kontrako indarkerian prestakuntza izatea bilatuko dute zerbitzuek. **Prestakuntza oinarritzakoa izango da, espezializatua eta etengabekoa.**
- ⇒ Prestakuntzari esker, langileek jarraibide jakinak izango dituzte indarkeriak eta beste desberdinkeria-iturri batzuek elkar gurutzatzen dutenetan nola jardun jakiteko (adinak, etniak eta jatorri kulturalak, desgaitasunak, adikzioak eta seme-alabak izatea dira Sakanan garrantzitsutako jotzen direnetako batzuk).
- ⇒ Gizarte-zerbitzuetako langile guztiek informazio eguneratua izango dute Nafarroako arreta-sare publikoko baliabide eta zerbitzuen inguruan, baita baliabide eta zerbitzu horien espezialitatean eta haietan sartzeko edo kasua helarazteko prozeduretan ere.

## GUNEAK ETA HORNIDURAK

- ⇒ Biktimen intimitatea eta jorratutako informazioa konfidentziala dela **bermatuko dute itxaroteko eta arreta egiteko guneek.**
- ⇒ **Biziraun dutenen arreta seme-alaben aurrean egitea saihestuko da.** Zerbitzura jotzen duten emakumeak seme-alabekin batera joanez gero, adingabekoek beste gune batean itxaron dezaten bilatuko da, beste senide batekin edo langile batekin. Ahal dela, bitartean ama ikusteko aukera ere izan dezaten bilatuko da.
- ⇒ Biktimek kontrakoa esaten ez duten bitartean, arreta bakarka egitea bilatuko da.

## HIZKUNTZAK

- ⇒ **Protokoloa sinatzen duten baliabideek biktimen erreferentziako hizkuntzan egingo dute arreta** eta horretarako eskualdeko gizarte-zerbitzuak erabiliko dituzte (Anitzartean, Sakanako kultur bitartekaritzarako erreferentziako zerbitzua baita, Gurutze Gorria, *Secretariado Gitano* fundazioa, etab.). Horien bidez ezin bada eta salbuespen moduan, emakumearen konfiantzazkoa den pertsona baten edo bitartekari telematikoen bidez itzuliko da.
- ⇒ Itzulpenak ezin direnean eskura dauden baliabideen bidez egin, Altsasuko udalak eta Sakanako Mankomunitateak hartuko dute hartuko dute ardura, ontzat jotzen dituzten bideen bidez.
- ⇒ **Biziraun dutenen seme-alabek** ez dituzten inoiz amek esanak itzuliko, ezta indarkeriaren biktima bakarra emakumea dela susmatzen denean ere.
- ⇒ EAIVk Sakanan egiten duen gizarte- eta heziketa-arreta eta arreta psikologikoa euskaraz zein gaztelaniaz egin ahalko da.

## ZERBITZU GUZTIENDAKO IRIZPIDE OROKORRAK

- ⇒ **Sakanan arreta espezializatua egiteko erreferentziako zerbitzua:** Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko **EAIV**. Emakumeen, haien seme-alaben eta haren mendekoak diren pertsonen arreta **zerbitzu berak** berak egin dezan bilatuko da.

### ▶ Indarkeria onartzen denetan:

Oro har, emakumeek indarkeria bizi dutela berariaz onartzen dutenetan, Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIVri helaraziko zaio kasua, biktimaren baimenaz.

▶ **Indarkeria onartzen ez denetan:**

Indarkeria dagoela sumatzen denetan, emakumeek onartzen ez dutenetan edo normaltzat jotzen dutenetan, OGZek egingo dituzte arreta eta jarraipena eta, salbuespen moduan (emakumeek ez dutenean zerbitzu horietara jo nahi), berdintasun-zerbitzuek egingo dituzte (Altsasukoak eta Sakanakoak). Egoera horietan, emakumeak ez “galtzea” bilatuko da: erreferentziazko zerbitzu edo pertsona batekin aldizka harremana izan dezaten eta bizi duten errealitateaz jabetu daitezen eta laguntza eskatzeko baldintzak sortzen joan daitezen bilatuko da. Horrez gain, egoera horietan emakumeen eta haien seme-alaben segurtasuna bermatuko dira beti. Arriskuan jar ez daitezen, **norberaren segurtasun-plan** bat prestatuko da haiekin batera; planak emakumeak eta, baldin badauzka, seme-alabak babesteko neurriak jasoko ditu.

▶ **Sexu-indarkeria:**

Nesken, neskatoen eta emakumeen aurkako sexu-indarkeria kasu guztiak helaraziko zaizkie EAIVri edo Delituaren Biktimei Arreta Egiteko eta Lege-organoeekin Lankidetzan Aritzeko Sailari (DBAS, gaztelaniaz, *Sección de Atención a las Víctimas del Delito y Colaboración con Órganos Judiciales*, SAVD; ikusi Beste zerbitzu batzuekin koordinatzea atala).

⇒ **Arreta non egingo den:** Emakumeen arreta **Sakanan** egingo da (emakumeen udalerrietan bertan edo, beren intimitatea babesteko hala eskatuz gero, gertuko udalerrietan). Beharra ikusten denean, udalek, berdintasun-zerbitzuen bidez, protokoloa sinatzen duten eta emakumeen udalerrian ez dauden beste zerbitzu batzuetara eramango dituzte emakumeak. Halaber, emakumeak babesteko beharrezkoak diren beste neurri batzuk ere ordainduko dituzte (adibidez, sarrailak aldatzea).

⇒ **Gizarte-zerbitzuek egiten duten arretaren ezaugarriak:**

- ▶ Arreta azkar egingo da, itxarote-zerrendak saihestuko dira eta, larriak diren kasuetan berehalakoa izango da, aldez aurreko hitzordurik gabe. OGZek egoera horiei aurre egiteko antolatuko dute arreta.
- ▶ Emakumeen arreta Sakanako gizarte-zerbitzu bat egiten ari denean, **EAIVk** arretan **laguntzea** edo laguntza osatzea bilatuko du, arretak espezializazio handiagoa eskatzen duenean eta zerbitzuak espezializazio-maila horri ezin dionean erantzun. Biktimek **erreferentziazko langile berak mantentzea** bilatuko da beti, haiek hala nahi duten bitartean.
- ▶ Hauek dira gizarte-zerbitzuak koordinatzearen bidez: informazio osoagoa izatea, esku-hartzea egokiagoa izan dadin; mezuak ez bikoiztea edo mezu desberdinak ematea saihestea; eta emakumeen baitan itxaropen faltsuak sortzea.
- ▶ Salatzea ez da gizarte-zerbitzuek esku har dezaten derrigorrezko baldintza bat, eta, beraz, salatzea ez da gizarte-zerbitzuen arretaren fokua. Gainera, aintzat hartu behar da aholku juridikoak izatea komeni dela salatu aurretik eta emakume guztiak ez dituztela salatzeo bizi-baldintza egokiak.
- ▶ Elkarrizketek konfiantzazko giroa sortzeko behar beste denbora iraungo dute. Gainera, biktimen beharrei eta bizi duten uneari egokitu zaien informazioa. Ez dira inoiz biktimek esaten dutena edo hartzen dituzten erabakiak epaituko edo baloratuko.

⇒ **Kasuak erregistratzea:**

- ▶ Emakumeen kontrako indarkeriak Sakanan duen eraginaren inguruko informazioa izateko, emakumeen kontrako indarkeria-kasu **guztiak** erregistratuko dituzte gizarte-

zerbitzuek, baita egoera susmagarriak ere. Horretarako, aldagai homogeneousak erabiliko dituzte eta aldagai horiek protokoloa ezartzeko prozesuan adostuko dira. OGZek SIUSS sistema (Gizarte-zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio-zerbitzua) erabiliko dute; ATENPROren informazioa ere jasoko da.

- ▶ Deribatutako kasuen informazioa ere erregistratuko dute zerbitzuek.

## GIZARTE-ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

### BERDINTASUN-SAILAK / -ZERBITZUAK

- ⇒ Emakumeen kontrako indarkeria-kasuen arreta zuzena egitea ez da Altsasuko eta Sakanako Mankomunitateko berdintasun-zerbitzuen egitekoa.
- ⇒ Emakumeen kontrako indarkeria-kasuren bat berdintasun-zerbitzuetara heltzen bada, berdintasun-teknikariak lehen arreta egingo du eta, protokoloan planifikatutakoarekin bat, dagozkion beste gizarte-zerbitzuei helaraziko die; kasua oso larria bada, SOS Nafarroako 112 zenbakira hots egingo du. Jarraibidea berbera izango da kasua Altsasuko berdintasun-zerbitzuak eskaintzen duen lege-zerbitzuak identifikatzen badu.
- ⇒ Salbuespen moduan, berdintasun-zerbitzuek egingo dute arreta, biktimak indarkeria dagoela aitortzen ez duenean eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetara jo nahi ez duenean.
- ⇒ Berdintasun-zerbitzuak oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako mankomunitateen hiru hilean behineko bileretara joan ahalko dira, koordinazio-arrazoiak direla eta berdintasun-zerbitzuak han egotea garrantzitsutako jotzen denean. Horrez gain, berdintasun-zerbitzuak eta EAIV bildu ahalko dira koordinazio-gaiak lantzeko, bi alderdiek egokia dela irizten diotenean.

### GIZARTE-ZERBITZUETARAKO MANKOMUNITATEAK

- ⇒ Sakanako oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako hiru mankomunitateak protokoloko gakoetako bat dira, udalerrietan indarkeria hautemateko (egiten dituzten lan-programen bidez, eta ez soilik Harrera eta Gizarte-orientazioa programaren bidez), lehen arreta egiteko eta, behar denean, kasua EAIVri helarazteko. Horregatik, emakumeen kontrako indarkeria gehituko dute beren diagnostiko eta esku-hartzeetan, alderdi transbertsal moduan; izan ere, lan-programetan parte hartzen duten emakume, neskatok eta neska asko indarkeriaren biktimak dira, baina OGZek ez dute hori hauteman.
- ⇒ OGZek indarkeria-kasuak hauteman ditzaten, susmo-adierazle homogeneousekin lan egingo dute (jarrerak, egoera emozionala, hitzezkoa ez den komunikazioa, etab.), eta egiten dituzten elkarrizketetan indarkeria dagoela aitortzen laguntzen duten galderak gehituko dituzte (“nola daude gauzak etxean?”, “kezkatu ikusten zaitut”, etab.).
- ⇒ Elkarrizketetako informazioa jasotzean kalitatean jarriko da arreta eta, indarkeria aitortu eta kasua EAIVri helaraziko zaionean, deribazioa egiteko beharrezko informazioa baizik ez da jasoko, emakumeek esandakoa errepikatu behar ez dezaten.
- ⇒ Oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako mankomunitateetako batek emakumeen kontrako indarkeria-egoeraren bat identifikatzen duenean, emakumeen kontrako indarkerian erreferentziakoa den pertsonari helaraziko dio eta pertsona horrek egingo du gizarte-arreta. Hala ere, OGZ bakoitzak balioetsiko du erreferentzia aldatzea komeni den edo barneko deribazioa nola egin behar den emakumeek eta langileek loturari eta konfiantzazko harremanari eusteko.

⇒ **Arreta psikologikoa eskaintzen duten gizarte-zerbitzuetarako mankomunitateak**

- ▶ Indarkerian espezializatutako arreta psikologikoa EAIVren esku egongo da, edo Delituaren Biktimen Bulegoaren esku (Justizia). Hala ere, OGZetarako mankomunitateek, egokia dela irizten badiote, arreta psikologikorako dituzten zerbitzuei helarazi ahalko dizkiete kasuak, indarkeria dagoela susmatzen denean edo biktimak onartzen ez duenean. Egoera horietan eta buru den pertsonak oraindik ez badu emakumeen kontrako indarkerian prestakuntzarik, EAIVren aholkularitza profesionala izango dute arreta egokia izan dadin, eta zerbitzu horrekin adostuko dute nola deribatuko den kasua, biktimak indarkeria onartu baina arreta psikologikoa mankomunitatean mantendu nahi badu.
- ▶ Altsasu, Olazti eta Ziordiko Mankomunitateak Altsasuko udaleko berdintasun-zerbitzuari lege-aholkularitza eskatu ahalko dio, biktimaren esku informazio guztia jartzeko laguntza juridikoa eskatzen duten prozesuaren alderdietan (esaterako, diru-laguntzen bateragarritasuna).

⇒ **Koordinazioa:**

- ▶ Oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako mankomunitate bakoitzak, esku-hartze zailena duten kasuak eztabaidatuko ditu.
- ▶ Indarkeria nesken eta neskatoen kontra denean, balioetsiko da koordinazioa OGZetarako mankomunitate bakoitzak dituen diziplinarteko beste zerbitzu batuekin batera egitea komeni den (esaterako, Umeen eta Gazteen Tratu Onerako Sarearekin). Gainera, eskatzen denean, arreta ikastetxeekin eta osasun-zentroekin ere koordinatuko da, kasuaren arabera.

**IRUÑERRIKO ETA NAFARROAKO IPARRALDEKO EAIV**

- ⇒ EAIV Sakanara joango da, emakumeen, haien seme-alaben eta emakumeen mendeko beste pertsonen gizarte- eta heziketa-arreta eta arreta psikologikoa egiteko.
- ⇒ Protokoloa sinatzen duten gizarte-zerbitzuek beren guneak utziko dizkiote EAIVri biktimen arreta egin dezan, biktimak zerbitzuaren erabiltzailea den edo ez erreparatu gabe.
- ⇒ Altsasuko emakumeak aholkatzean eta laguntzean, EAIVk Altsasuko udalak duen lege-aholkularitza zerbitzua kontuan hartuko du, arreta biktiman zentratuagoa egon dadin eta, beraz, gertuagokoa izan dadin.
- ⇒ OGZetarako mankomunitateek **kasuak EAIVri helarazten dizkiotenean**, EAIVk kasuen berri emango die, irizpide hauen arabera:
  - a) Kasuen jarraipena hiru hilean behin **programatutako lan-bileretan** egingo da.
  - b) Kasuak eskatzen duenean, biktimak **bere egoeraren tratamendu-txosten bat** eskatu ahalko dio EAIVri. Txostena bi aste epearekin eskatu beharko zaio EAIVri.
  - c) Kasu guztietan, EAIVk kasuaren esku-hartzea hasi eta bukatu duela jakinaraziko dio oinarrizko gizarte-zerbitzuari edo Altsasuko Udaltzaingoari, kasua zeinek deribatu duen, eta idatziz eta posta elektronikoz egingo du.
  - d) OGZetarako mankomunitateek, berdintasun-zerbitzuek eta Altsasuko Udaltzaingoak EAIVri helarazten dizkion kasuen **deribazio-txostenak** egingo dituzte, aldeztu aurretik finkatutako ereduaren arabera. Txostenek deribazioa egiteko behar den informazioa besterik ez dute jasoko eta txostenak egiteak ezingo du inola ere arreta atzeratu (telefonoz helarazi daiteke eta ondoren txostenaren bidez formalizatu).
- ⇒ Biktimen gizarte-arreta berehalakoa izango da eta, eskatzen denaren arabera, EAIVri helaraziko zaio, heziketan esku-hartzea edo esku-hartze terapeutikoa egin dezan. Sexu-

erasoa egiten den kasuetan, arreta psikologikoak lehentasuna izango du eta berehalakoa izango da lehen hitzorduaren ondoren.

- ⇒ EAIIVk adingabekoen arreta egiten duenean, baloratuko da kasua mankomunitateetako Umeen eta Gazteen Tratu Onerako Sareekin koordinatu behar den, baita beste alor batzuetako zerbitzuekin koordinatu behar den ere (nagusiki ikastetxeekin eta osasun-zentroekin).

## GIZARTE-ZERBITZUEN ETA BESTE ZERBITZU BATZUEN ARTEAN:

### GIZARTE-ZERBITZUETARAKO MANKOMUNITATEAK ETA BESTE ZERBITZU BATZUK

#### ⇒ OSASUN-ZENTROAK

- ▶ OGZetarako hiru mankomunitateek bilerak egingo dituzte sei hilabetean behin, zein bere osasun-zentroarekin, emakumeen kontrako indarkeria kasuen jarraipena egiteko, baita adingabeko emakumeen kontrako indarkeria saihesteko edo arreta egiteko. Gainera, bi zerbitzuen artean koordinazioa egingo da, eskatuz gero, kasu bakoitzaren beharren arabera.
- ▶ OGZek indarkeria dagoela susmatzen dutenean edo emakumea ez bada ohartzen indarkeria bizi duela, dagokion osasun-zentroko erreferentziatzko pertsonarekin hitz egingo da, adi egon dadin.

#### ⇒ DELITUAREN BIKTIMEI ARRETA EGITEKO ETA LEGE-ORGANOekin LANKIDETZAN ARITZEKO SAILA, DBAS.

- ▶ Oinarrizko gizarte-zerbitzuek DBASi helaraziko dizkiote emakumeen kontrako indarkeriako erasotzaileak, erasotzaileekin arreta terapeutikoa egiteko programetan nahita eta modu anbulatorioan parte hartu nahi badute; programa horiek DBASek antolatzen ditu Iruñean, PSIMAEren bidez. Arreta hori ez da egoitza judizialean egingo. Arreta hori ez da egoitza judizialean egingo.
- ▶ Sakanako gizarte-zerbitzuetako mankomunitateek eta berdintasun-zerbitzuek aintzat hartuko dute DBASek, PSIMAEren bidez, arreta espezializatua egiten duela Iruñean, sexu-indarkeriaren biktimak izan diren neska, neskatu eta emakumeendako. Arreta hori ez da egoitza judizialean egingo.
- ▶ Arreta osorako erreferentziatzko zerbitzu espezializatua EAIIV da, baina gizarte-zerbitzuetarako mankomunitateek eta berdintasun-zerbitzuek kontuan izango dute DBAS arreta osoko zerbitzu bat dela eta lege-gaietan espezializatuta dagoela; gainera, beste delitu-biktima batzuen arreta egiteaz gain, emakumeen kontrako indarkeriatik bizirik atera diren biktimen arreta ere egiten du, batez ere epaitegietan dauden kasuetan. Esku-hartze horren parte da arreta psikoterapeutikoa egitea emakumeen kontrako indarkeriatik bizirik atera diren emakume eta neskekin, baita haien seme-alabekin ere.

#### ⇒ Emakumeen Arreta Juridikorako Zerbitzua, EAZ

- ▶ Emakumeen Arreta Juridikorako Zerbitzuak (EAZ) emakumeei eskaintzen dien lege-aholkularitza indarkeria-egoerak eragindako alderdi guztiak hartuko ditu barne, eta Iruñeko Abokatuen Elkargoan egingo da zuzenean edo Iruñerriko eta

Nafarroako Iparraldeko EAIVren bidez kudeatuko da. Aholkularitza telefonoz edo aurrez aurre (Berriozarren edo Iruñean, aldez aurreko hitzorduarekin) egingo da. salatu aurretik EAZk egiten duen aholkularitza Sakanako polizia-bulegoetan egingo da (ikusi poliziaren prozeduraren atala).

- ▶ Altsasuko emakumeen lege-aholkularitzari dagokionez, hango udaleko aholkularitza-zerbitzu juridikoa aintzat hartuko da, zerbitzu horren bidez emakumeek beren baitan zentratuago dagoen arreta jasotzen dutelako, eta haiendako gertuagokoa den inguru batean.

⇒ **ESTATUKO LAN PUBLIKOKO ZERBITZUA, SEPE.**

- ▶ Emakumeen diru-autonomia bilatzeko, SEA eskatu aurretik, SEPEko bulegoarekin harremanetan jarriko dira, emakumeen baimenarekin, OGZetako eta EAIVko erreferentziako gizarte-langileak, egoeren berri emateko eta diru-laguntza kudeatzeko izapideak azkartzeko.

⇒ **ESPEZIALIZATUTAKO BESTE ZERBITZU BATZUK**

- ▶ Emakumeen kontrako indarkeriaz gain, biktimek beren zaugarritasuna handitzen duten beste bereizkeriak bizi badituzte (desgaitasunak, adikzioak, ijitoen etniako kide badira, etab.), EAIV eta gainerako gizarte-zerbitzuak errealitate jakin horiekin lan egiten duten beste zerbitzu espezializatuekin jarriko dira harremanetan, kasua koordinatu eta arretak errealitate hori ere zain dezan.

## C) JARDUN KOORDINATUAREN LABURPENEA



### KOORDINAZIO-TRESNAK

- ▶ **Aldizkako bilera egituratuak: astero** (gizarte-zerbitzuetarako mankomunitate bakoitzean) **eta orokorrak** (Koordinazio Mahaia). **Kasuen eta deribazioen erregistro homogeneoa** (OGZen mankomunitateetan SIUSSn). **Biziraun dutenen egoeraren inguruko txostenak** (EAIVri eskatu 15 egun lehenago). **EAIVn arreta hasi eta amaitu dela telematikoki jakinarazi kasua helarazten duen zerbitzuari**. Bilerak hiru hilean behin EAIVren eta OGZetako erreferentziako pertsonen artean, kasuen jarraipenerako.

### ZERBITZUAK ETA EZAUGARRIAK

- ▶ **Berdintasun-sailak eta -zerbitzuak:** Zuzenean iristen diren kasuei arreta egitea eta kasua dagokionari helaraztea. Arreta egitea biktimak indarkeria bizi duela onartu ez eta OGZetara jo nahi ez duenean. Lege-aholkularitza (Altsasuko udalak).
- ▶ **Sakanako Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitateak:**
  - Saihestea, hautematea eta lehen arreta. ATENPRO kudeatzea.
  - Indarkeria dagoela susmatzen denean edo indarkeria dagoela onartzen ez denean:** Gizarte-arreta eta arreta psikologikoa (zerbitzu hori duten mankomunitateetan).
  - Indarkeria onartzen denean:** Kasua EAIVri helaraztea.
- ▶ **Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIV:** Arreta espezializatua eta osoa gizarte- eta heziketa-gaietarako, arreta psikologikorako eta arreta juridikorako (EAZren bidez), emakumeen kontrako indarkeriaren biktimek indarkeria hautematen eta bizi dutela onartzen dutenean. Arreta psikologikoa eta heziketa-arreta seme-alabendako.

### GIZARTE-ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

- ▶ Zerbitzu bakoitzak erreferentziako pertsona bat izango du emakumeen kontrako indarkeria-kasuen koordinazio tekniko eta arreta egiteko. Mankomunitatean, pertsona hori gizarte-langilea izango da.
- ▶ EAIVren arreta, oro har, Sakanako dauden udalerrri eta zerbitzuetan egingo da.
- ▶ Erreferentziako profesionalari utsiko zaio (gizarte-arretarako eta arreta psikologikorako), kasuak beste zerbitzu batzuei helarazirik ere.
- ▶ Arreta azkar egingo da, berehala kasu larrietan, eta itxarote-zerrendak saihestuko dira.
- ▶ Gizarte-arretak ez du salatzea eskatzen eta ez da salatzerantz bideraturik egongo.

### BESTE ZERBITZU BATZUEKIN KOORDINATZEA

- ▶ **Osasun-zentroa:** Bilerak hiru hilean behin eta, eskatzen denena, koordinazioa. Susmagarriak diren kasuen berri ematea.
- ▶ **DBAS:** OGZetarako mankomunitateek erasotzaileek helaraziko dizkio, erasotzaileendako arreta terapeutikoko programetan nahita parte hartu nahi dutenean. Bizirik atera diren biktimak helarazi ahalko zaizkio (batez ere sexu-indarkeriako kasuetan), arreta terapeutikoa egiteko.
- ▶ **SEPE:** SEA eskatuko den kasuetarako harremana.
- ▶ **EAZ** Lege-aholkularitza telefonoz edo aurrez aurre Iruñean eta Berriozarren.



## **2.3.2. JARDUKETA-PROZEDURA POLIZIAREN- ZERBITZUETAN**

## 2.3.2. JARDUKETA-PROZEDURA POLIZIAREN-ZERBITZUETAN

### A) PROZEDURA ZER ZERBITZUTARAKO DEN ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAN EGITEN DUTEN ARRETAREN EZAUGARRIAK

#### ZERBITZU HAUETARAKO

⇒ Altsasuko Udaltzaingorako

⇒ Nafarroako Foruzaingorako, Guardia Zibilerako eta Espainiako Polizia Nazionalerako (Sakanako polizia-bulegoak).

“Poliziaren esparruko prozedura, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean Nafarroan jarduteko eskualdeko protokoloei eransten zaiena” jarraituko dute; prozedura hori Nafarroan dauden segurtasun-indar eta -kidegoendako erreferentziazko tokiko koordinazio-prozedura da (udaltzaingoarendako izan ezik).

#### ZERBITZUEN EZAUGARRIAK

- ▶ Berehalako eta kalitatezko polizia-arreta eta -babes eraginkorra.
- ▶ Eskubideen eta zerbitzuen inguruko informazio argi eta ulergarria.
- ▶ Salatutakoa ikertzea.
- ▶ Poliziaren arrisku-balioespenak egitea; poliziaren arrisku-balioespenen bilakabidea ebaluatzea; eta VioGenen bidez identifikatutako arrisku-mailaren arabera poliziaren babes-neurriak jartzea (VioGenen bidez bikoteko eta bikote ohiko indarkeria-kasuak besterik ez dira jasotzen).
- ▶ Beste poliziekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, baita beste zerbitzu publikoekin ere.
- ▶ Ordutegia: Urteko 365 egunetan, 24 orduz.

### B) ERA KOORDINATUAN JARDUTEKO PROZEDURA

#### POLIZIAREN ZERBITZUETAN:

##### ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK IZENDATZEA

⇒ Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetan poliziak **unitate edo langile espezializatuen bidez egingo du arreta.**

⇒ Altsasuko Udaltzaingoa gutxienez **erreferentziazko bi pertsona** egongo dira emakumeen kontrako indarkeria-kasuetan beste zerbitzu batzuekin koordinazio teknikoa egiteko.

##### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAN PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA

⇒ Emakumeen kontrako indarkerian ardurak izango dituzten Altsasuko udaltzainek **prestakuntza espezializatu eta egiaztatua** izango dute berdintasunean eta emakumeen kontrako indarkerian. Prestakuntza horren bidez, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak udaltzainei ematen dien emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko

prestakuntza osatuko da.

- ⇒ Altsasun emakumeen kontrako indarkerian esku hartuko duten udaltzainen **prestakuntza hasierakoa (oinarrizkoa), espezializatua (poliziarri egokitua) izango da, eta etengabean eguneratuko da.**
- ⇒ Emakumeen kontrako indarkerian eskumenak izango dituzten poliziek VioGen tresnaren bidez lan egiteko behar den ezagutza izango dute, baita ezagutza informatikoa ere.
- ⇒ Udaltzainek protokolo hau ezagutuko dute, baita Sakanan eta Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren arreta egiteko dauden zerbitzu publikoak eta kasuak zerbitzu horietara helarazteko prozedurak ere.

## GUNEAK ETA HORNIDURAK

- ⇒ Saihestuko da biziraun duten emakumeek eta beren seme-alabek gainerako gaietarako itxarote-gela komunetan itxarotea.
- ⇒ Biziraun duten emakumeen arreta egiteko guneak egokiturik egongo dira elkarriketak biktimen **intimitatea** eta hitz egindako informazio guztiaren **konfidentzialtasuna** bermatzeko inguru batean egin daitezten.
- ⇒ Polizia-bulegoak egokitzen joango dira irisgarriak izan daitezten eta arkitektura-oztoporik izan ez dezaten.
- ⇒ **Biziraun dutenen arreta ez da seme-alaben aurrean egingo.** Emakumeak adingabeekin batera badaude, adingabeek ondoz ondoko gela batean itxarongo dute, konfiantzazko pertsona batekin edo, bestela, beste langile batekin. Ezingo balitz baldintza hori bete, udaltzainek kasua Foruzaingoari edo Guardia Zibilari, emakumearen erabakiaren arabera, helaraziko diote eta Altsasuko polizia-etxera lagunduko dituzte; haien instalazioak baldintza hori betetzeko egokiturik daude eta, nahiz eta amengandik bereizirik egon, begiz ikusi ahalko dituzte uneoro.
- ⇒ Poliziak arreta **etxe** batean egiten duenean, han seme-alabak daudelarik, poliziek egoera balioetsiko dute eta, seme-alabek ez badute amarengandik bereizi nahi, errealitate hori aintzat harturik moldatuko dituzte elkarriketak.
- ⇒ Laguntzen duten eta babes-neurrien jarraipena egiten duten poliziak **uniformerik gabe eta errotulurik gabeko autoetan** joatea bilatuko da. Gainera, autoak egokiturik egongo dira amak eta beren seme-alabak eramateko (egokitutako aulkiak) egoerak hala eskatzen duenean.

## HIZKUNTZAK

- ⇒ Biktimei **beren hizkuntzan egingo zaie arreta.** Horretarako, eskura dauden komunitateko zerbitzuak erabiliko dituzte poliziek (Anitzartean, Gurutze Gorria, etab.).
- ⇒ Horrelako baliabiderik ez dagoenean, udaltzainak Foruzaingoaren Altsasuko polizia-etxearekin edo Guardia Zibilarekin, emakumearen erabakiaren arabera, koordinatuko dira eta emakumeak eramango dituzte (Foruzaingoak bere itzulpen-zerbitzua dauka).
- ⇒ Emakumeei ematen zaien idatzizko informazioa beren erreferentziazko hizkuntzan egon dadin bilatuko da.
- ⇒ **Biziraun dutenen seme-alabak ez dira itzultzeko erabiliko,** ez etxeke edo polizia-etxeke lehenengo arretan, ezta babes-neurrien jarraipenean ere.

## POLIZIAREN ARRETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK

- ▶ Eragiten dion araudiarekin bat, poliziak egiten duen arreta ahal bezain **adeitsua, beroa, azkarra eta eraginkorra** izango da.
- ▶ Emakumeei **segurtasuna** helaraztea bilatuko da; beraz, haien onespenearekin, harremanetan egongo dira etengabe.
- ▶ Poliziaren esku-hartze prozesu osoan emakumeek behar duten informazio guztia bilatuko da eta emango zaie. Informazio hori irisgarria eta ulergarria izango da.
- ▶ **Gertatutakoa edo emakumeek esandakoa ez da inoiz epaituko, ez da zalantzan jarriko eta inork ez du bere iritzirik emango.** Alderdi hori oso garrantzitsua da eta inguru txikietan biktimak birbiktimizatzea saihesten du, inguru horietan guztiek elkar ezagutzen dutelako.
- ▶ Udaltzainek elkarrizketa-eredu bat egingo dute; galderak finkoak izango dira, etxeetan zein polizia-etxeetan egiteko modukoak, eta zuzenegiak izan ez daitezten bilatuko da, kasu jakinetan izan ezik, erreferentziazko legediak zehazten duen moduan..
- ▶ Poliziaren babes-neurriak pertsona bakoitzarendako bereziak antolatuko eta ezarriko dira (**Norberaren Babes Plana**). Plan horretan biziraun dutenen behar eta egoera bereziak aintzat hartuko dira, baita haien seme-alabenak ere.
- ▶ Udaltzaingoak tresna telematikoetan (VioGenen eta beste) eta eguneroko agiritan jasoko dute emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazio guztia. Informazio hori estatistikoki erabiltzeko, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez Nafarroako Gobernuak segurtasun-gorputz eta -indarretarako zehaztutako aldagaiak aintzat hartuko ditu.
- ▶ Poliziek aintzat hartuko dute salatzea prozesuko momentu gogorrenetakoa dela emakumeendako eta ez daudela beti salatze moduan, ez dutelako behar beste berme edo baliabide (esaterako, behar beste informazio). Horregatik, poliziaren jarduna ez da salatzerantz bideraturik egongo; kasuaren arabera, beste zerbitzu batzuei helaraziko zaie kasua, protokolo honetan zehaztutako moduan.
- ▶ **Salaketa** egiteko, udaltzainek Foruzaingoaren edo Guardia Zibilaren Altsasuko polizia-etxeari helaraziko dizkiote kasuak, eta salaketa barne-prozeduren arabera egingo da. Beti ere biktimen baimenarekin eta, salatu nahi dutela baieztaturik, salaketa Foruzaingoaren Laguntza-brigadaren edo EMUME unitatearen bidez egingo da. Udaltzainek emakumeak eta beren seme-alabak Foruzaingoaren edo guardia Zibilaren bulegoetara lagunduko dituzte edo, eramateko baliabiderik ez dutenean, Altsasuko polizia-etxera edo Iruñekoetara joateko modua antolatzen lagunduko dute.
- ▶ Udal guztiek, behar denean, emakumeak polizia-etxeetara **joateko** moduak bilatuko dituzte, berdintasun-zerbitzuen bitartez (adibidez, taxien bidez).
- ▶ **Udaltzaingoak** honela egingo ditu deribazioak:
  - a) Emakumeen kontrako indarkeria dagoela **susmatzen bada** edo biktimak indarkeria bizi duela onartzen ez badu, Altsasuko OGZri helaraziko zaio kasua (zerbitzua ezagutzen badu eta erabiltzailea bada); ez badu OGZra jo nahi edo erabiltzailea ez bada, udaleko berdintasun-zerbitzura joko da.
  - b) **Indarkeria bizi duela onartzen bada**, Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIVRi helaraziko zaizkio kasuak.
  - c) Deribazioa errazteko, beti ere emakumeen baimenarekin, udaltzainak telefonoz edo email bidez jarriko dira harremanetan, kasuaren arabera, OGZko emakumeen kontrako indarkerian erreferentziazko pertsonarekin, udal berdintasun-zerbitzuko

teknikariarekin edo Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIVko koordinatzailearekin edo protokolo honetako erreferentziazko pertsonarekin. Ondoren, kasua jaso duen zerbitzua emakumeekin harremanetan jarriko da elkarrizketa bat egiteko, laguntza behar duen ikusteko edo egoeraren jarraipena egiteko, kasuaren arabera, “gal ez daitezten”.

- d) Egoera larria bada, SOS Nafarroako 112 zenbakira hots egingo da, eta haien protokoloei jarraituko zaie (112 zenbakiaren bidez larrialdietarako arreta psikologiko zerbitzua eska daiteke; zerbitzua egunean 24 orduz dabil, urteko 365 egunetan).
  - e) Egoeraren konplexuak kasuaren deribazioan zalantzak sortzen baditu, udaltzainak udal berdintasun-zerbitzuarekin harremanetan jarriko dira, jarraibide hoberenak zein diren jakiteko. Zalantza juridikoak izanez gero, salaketarekin loturikoak barne, berdintasun-zerbitzuari helaraziko zaio (edo EAIVren bidez Emakumeen Arreta Juridikorako Zerbitzuarekin, EAZrekin, harremanetan jarri dira).
- ▶ Udaltzainek Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIVko telefono-zenbakia duten informazio-txartelak izango dituzte beti, eta emakumeei emango dizkiete, etxeetan zein polizia-etxean egiten duten arretan.
  - ▶ Emakumeen kontrako indarkeria-kasuen arreta gaian prestakuntza duten poliziek baino egin ez dezaten antolatuko da udaltzaingoa.

## POLIZIA-ZERBITZUEN ARTEAN:

### POLIZIAREN KOORDINAZIOA

- ⇒ Foruzaingoaren, Guardia Zibilaren, Espainiako Polizia Nazionalaren eta tokiko poliziaren arteko koordinazioa poliziaren esparruko prozeduretan zehaztutakoaren arabera egingo da; prozedura hori emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eskualdeko protokoloei erantsen zaie.
- ⇒ Poliziak **VioGen**en bidez koordinatuko dira elkarren artean; VioGen sistema Espainiako Barne Ministerioaren sistema bat genero-indarkeria kasuen jarraipen osoa egiteko. Alde horretatik, honela jardungo da:
  - a) Biktima Altsasun bizi bada eta Foruzaingoak, Guardia Zibilak edo Espainiako Polizia Nazionalak egindako **arriku-ebaluazioa itxuraz arriku gabea edo arriku txikikoa** bada, jarraipena **Altsasuko Udaltzaingoari helaraziko zaio. Arriku-maila ertaina, handia edo muturrekoa bada**, jarraipena **biktimaren salaketa jaso duen polizia-taldeak egingo du**. Altsasuko Udaltzaingoak arriku ertaineko, handiko edo muturreko biktimen babesean esku-hartuko du Foruzaingoaren, Guardia Zibilaren edo Espainiako Polizia Nazionalaren talde espezializatuek hala eskatzen diotenean, jarraipen- eta kontrol-organoak zehazten duen norbanakoaren babes-planean ezarritako baldintzetan.
  - b) Sakanako gainerako udalerrietan, arriskua eta arriskuaren eboluzioaren jarraipena biktimaren salaketa lehenik jaso duen segurtasun-gorputz edo -indarrak egingo du, eta beti polizia-indar berak egingo du. Emakumeek erreferentziazko polizia-indarra aldatu nahi badute, eskatu ahalko dute.
  - c) Salatu aurretik eta derrigorrez, dagokien polizia-indarrak **EAZ**ren bidez laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea dutela jakinaraziko die emakumeei, eta, emakumeen baimenarekin, doako zerbitzu horrekin harremanetan jarriko dira; zerbitzua polizia-etxera joango da laguntza ematera (salbuespen moduan telefonoz ere egin ahalko da). Laguntza hori ematen ez den kasuetan, zergatik ez den eman zehaztuko da (biktimak zerbitzuari uko egin dio, ez zegoen langilerik eskura, etab.).

- ⇒ Altsasuko udaltzaingoa beste polizia-indarrekin lankidetzan arituko da COMETA gailuari dagokionez (Genero-indarkeria kasuetan Bitarteko Telematikoan bidez Neurriak eta Urruntze-zigorrek Egiartzatzeko Gailua); gailu horri esker, agintari judizialek ezarritako neurriak eta biktimari ez hurbiltzeko debeku-zigorrek betetzen direla egiazta daiteke, gailua erabiltzea adosten den prozedura judizialean.

## POLIZIAREN ETA BESTE GIZARTE-ZERBITZU BATZUEN ARTEAN:

### GIZARTE-ZERBITZUETARAKO MANKOMUNITATEAK ETA BERDINTASUN-ZERBITZUAK

- ⇒ **Altsasuko udaltzaingoa, Foruzaingoa (Altsasuko polizia-etxea) edo Guardia Zibilak OGZtarako mankomunitate**en lankidetzan eskatu ahalko dute (emakumeen kontrako indarkeria-kasuetan erreferentziazkoak diren pertsonen lankidetzan), egoerak konplexuak direlako eta esku-hartzeak bestelako plangintza bat eskatzen duelako. Adibidez, polizia etxera joan ordez, biktimarekin egiten den lehen harremana OGZen bidez egin daiteke, eta bilatuko da OGZen egiten den lehen elkarrizketa, gizarte-langileaz gain, poliziarekin ere egitea.
- ⇒ Altsasuko udaltzaingoa era sistematikoan eta berehala eman dio udal berdintasun-zerbitzuari sexu-indarkeria kasuen berri, baita biktimarekin arrisku larria edo hiltzeko arriskua duten kasuen berri ere (ikus horretarako prozedura jakina). Gainera, zehazten den moduan eta era sistematikoan jasoko da egindako arreta-kopuruen eta horien ezaugarrien inguruko informazioa.

### IRUÑERRIKO ETA NAFARROAKO IPARRALDEKO EAIV

- ⇒ Foruzaingoa Sakanako emakumeen kontrako indarkeria-kasu guztien berri emango dio EAIVri, erreferentziazko zerbitzua baita; etxetan zein polizia-etxean egiten dituen arreten berri emango du. Horrez gain, emakumeak eta zerbitzua harremanetan jarriko ditu, beti ere emakumeen baimenarekin. Horretarako, telefonoz edo posta elektronikoz bidez, kasuaren berri emango die, ondoren EAIV emakumeekin harremanetan jar dadin.

## JARDUN KOORDINATUAREN LABURPENA ZERBITZUAK ETA EZAUGARRIAK



### KOORDINAZIO-TRESNAK

**Bilera egituratuak** Koordinazio Mahaiarekin. **Informazioa eta lankidetzak**, eskatzen denean. **Kasuen erregistroa** (VioGen). **Kasuak polizia-zerbitzuen artean edo polizia-zerbitzuetatik helaraztea**, kasua jasotzen duen zerbitzuarekin aldeztu aurretik harremanetan jarri.

- ▶ **Esku-hartzaileak:** Altsasuko udaltzaingoa eta Foruzaingoaren Altsasuko Polizia-etxea.
- ▶ Foruzaingoak, Guardia Zibilak eta Espainiako Polizia Nazionalak poliziaren esparruko prozeduraren arabera jardungo dute, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean Nafarroan jarduteko lurralde-protokolei erantzen zaiena.
- ▶ **Lanak:** Berehalako eta kalitatezko arreta egin, polizia-babesa eman eta salatutakoa sakon ikertuko dute. Poliziaren arrisku-balorazioak egin eta haien bilakaerari jarraituko diete.
- ▶ Emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako taldeen edo pertsonen bidez egingo dute arreta.
- ▶ Polizia-bulegoetan egiten den arreta intimitatea eta informazioaren konfidentziasuna bermatuz egingo da. Esku-hartzea egoerari egokituko zaio (erreferentziazko hizkuntzara itzultzea, elkarrizketetan seme-alabak ez egotea, etab.).

### POLIZIAREN ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

- ▶ Altsasuko udaltzaingoa EAIVri helaraziko dizkio kasuak biktimek indarkeria bizi dutela onartzen dutenean. Indarkeria ez denean onartzen edo indarkeria dagoela susmatzen denean, OGZri edo berdintasun-zerbitzuari helaraziko zaizkio. Zalantza izanez gero, berdintasun-zerbitzuaren aholkua eskatuko da.
- ▶ Altsasuko udaltzaingoa Foruzaingoak udalerriaren duen polizia-etxera edo Guardia Zibilarengana, emakumearen erabakiaren arabera, helaraziko dizkio emakumeen kontrako indarkeria-kasuak, beti ere emakumeek ados daudela adierazten dutenean.
- ▶ Polizia-indarrak VioGen sistemaren bidez koordinatuko dira.
- ▶ Foruzaingoak, Guardia Zibilak eta Espainiako Polizia Nazionalak arrisku ertaina, handia eta muturrekoa duten kasuen jarraipena egingo dute. Altsasuko udaltzaingoa itxuraz arriskurik ez duten eta arrisku txikiko kasuen jarraipena egingo du, eta biziraun

### POLIZIAK BESTE ZERBITZU BATZUEKIN KOORDINATZEA

- ▶ **OGZen mankomunitateekin:** Kasuei heltzen eta jarraitzen lankidetzan aritzea, batez ere seme-alabak daudenean.
- ▶ **EAIV:** Erreferentziazko zerbitzua segurtasun-gorputz eta -indarrek kasuak helarazteko.
- ▶ **EAZ:** Salatu aurretik laguntza eskaintzea derrigorrez.
- ▶ **Altsasuko berdintasun-zerbitzua:** Kasu batzuetan sexu-indarkeria egiteko edo emakumea hiltzeko arriskua handia d; udaltzaingoa horien guztien berri emango dio.



### **2.3.3. JARDUKETA-PROZEDURA OSASUNEAN**

## 2.3.3. JARDUKETA-PROZEDURA OSASUNEAN

### A) PROZEDURA ZER ZERBITZUTARAKO DEN ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAN EGITEN DUTEN ARRETAREN EZAUGARRIAK

ZERBITZU HAUETARAKO	
<ul style="list-style-type: none"><li>⇒ Altsasuko osasun-zentrorako</li><li>⇒ Etxarri Aranazko osasun-zentrorako</li><li>⇒ Irurtzungo osasun-zentrorako</li><li>⇒ Sexu- eta ugaltze-osasunari arreta egiteko Etxarri Aranazko (CASSYR Etxarri Aranatz)-Emakumearen Arreta Zentrorako</li></ul>	
ZERBITZUEN EZAUGARRIAK	
<b>LEHEN ARRETA: ZENTROAK</b>	<b>MAILAKO OSASUN-</b>
	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ Indarkeria hautematea eta balioestea eta arreta soziosanitarioa egitea.</li><li>▶ Osasun-egoeraren jarraipen osoa egitea emakumeak, neskatoak eta neskek erabat osatu arte, baita emakumeen mendeko beste pertsonena ere, hala nola haien seme-alabena.</li><li>▶ Izapideen berri ematea eta kasuak deribatzea.</li><li>▶ Auzitegietarako zauri-txostenak egitea.</li><li>▶ Arreta jarraitua eta berehalakoa egitea (larrialdietarako landa-zerbitzuen bidez).</li><li>▶ <b>Ordutegia:</b> Astelehenetik ostiralera: 8.00-15.20; larunbatetan: 8.00-15.00. Ordu horietatik kanpo, igandeetan eta jaiegunetan, zaintza fisikoak hiru osasun-zentroetan. Larrialdietako arreta 112 zenbakiaren bidez.</li><li>▶</li></ul>
<b>CASSYR ARANATZ</b>	<b>ETXARRI</b>
	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ Indarkeria hautematea eta arreta egitea sexu- eta ugaltze-osasunean eskainitako zerbitzuen bidez.</li><li>▶ Informazioa jasotzea eta kasuak deribatzea.</li><li>▶ Indarkeria saihestea erizaintza-, ginekologia- eta obstetria-zerbitzuen bidez. Familia-plangintza eta sexu-heziketa.</li><li>▶ <b>Ordutegia:</b> Astelehenetik ostiralera. 8.00-14.00.</li></ul>

## B) ERA KOORDINATUAN JARDUTEKO PROZEDURA

### OSASUN-ZERBITZU GUZTIETAN:

#### ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK IZENDATZEA

- ⇒ Prozedura honetan parte hartzen duen zerbitzu orok **erreferentziazko pertsona bat** izendatuko du emakumeen kontrako indarkerian koordinazio tekniko egiteko, osasun-zentroan bertan, baita beste zerbitzuekin ere.
- ⇒ Osasun-zentroetako erreferentziazko pertsonak **gizarte-langileak** izan daitezten bilatuko da; ez badago edo haren ordutegietatik kanpo, zentroarekin harreman iraunkorra duen osasun-langile bat izango da eta erreferentziazko gizarte-langileari emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazio guztia helaraziko dio sistematikoki.

#### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAN PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA

- ⇒ Emakumeen kontrako indarkerian protokoloan erreferentziazkoa den pertsona orok **emakumeen kontrako indarkerian prestakuntza espezializatua** egiaztatuko du edo bereganatzen joango da. Prestakuntza hori, ahal dela unibertsitate batek edo erakunde publiko batek emango du.
- ⇒ Emakumeen kontrako indarkerian osasun-zerbitzuek egiten duten esku-hartzeak hainbat diziplina hartzen ditu barne eta, beraz, osasun-langile guztiak, baita langile administratiboak ere, prestakuntza jasoko dute gutxika, esku-hartzea arreta egokiaz egiten dela ziurtatzeko. Horrek berekin dakar emakumeen kontrako indarkerian ezagutza mediko-legala izango dutela, indarkeria hori hautematen eta tratatzen jakingo dutela, emakumeek are zaurgarriagoak diren egoeretan indarkeriari osasunbidetik nola egin jakin ezagutuko dutela (haurdunaldia, adikzioak, desgaitasuna, gogoko osasun-arazoak, etab.), besteak beste. Gainera, informazio eguneratua izango dute emakumeen kontrako indarkeriari arreta egiteko sare publikoak dituen zerbitzuen inguruan, baita zerbitzu horietara iristeko eta kasuak baliabide horiei helarazteko prozeduren inguruan ere.
- ⇒ Protokoloan parte hartzen duten osasun-zerbitzuek langileak gaitzea bilatuko dute, emakumeen eskubideak benetan betetzen direla bermatzeko erantzukizuna dutenek era egokian jardun dezaten (Erantzukizun printzipioa).
- ⇒ Osasun-zerbitzuetako langileek jasotzen duten emakumeen kontrako indarkeriako **prestakuntza oinarrikoa, espezializatua eta jarraitua izango da.**

#### GUNEAK ETA HORNIDURAK

- ⇒ Osasun-arreta, -tratamendua eta -aholkularitza pribatuak eta konfidentzialak izango dira (informazioa emakumeen baimenaz baino ez da zabalduko). Horregatik, emakumeen arreta emakumea eta langilea bakarka dauden gunetan egitea bilatuko da, haien intimitatea bermatzeko. Emakumeek hala nahiago badute, haien konfiantzazkoa den pertsona batekin egingo zaie arreta, baina inoiz ez bikotekidea edo bikotekide ohia aurrean daudela.
- ⇒ Aintzat hartuko da gune adeitsu eta erosoek emakumeek beren kontrako indarkeria-kasuen berri ematen laguntzen dutela.

## HIZKUNTZAK

- ⇒ Emakumeen arreta **haien erreferentziazko hizkuntzan** egitea bilatuko da, eta horretarako eskualdeko gizarte-zerbitzuak erabiliko dira (Anitzartean, Gurutzeko Gorria, 112 zenbakiaren bidezko telefonoko itzulpena, etab.). Egoera larria bada edo ez badago baliabide eskuragarririk, beste bide batzuk erabiliko dira, hala nola emakumeen konfiantzakoa den pertsona baten edo baliabide telematikoen bidezko itzulpenak.
- ⇒ Hizkuntza oztopo bat bada eta Sakanako baliabideek ezin badute gainditu, osasun-langileak gizarte-langileari egoeraren berri emango dio, emakumearen baimenaz, harekin harremanetan jarri eta emakumearen egoerak eskatzen duen arreta egokia emateko.
- ⇒ Osasun-zentroetan emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan egongo den idatzizko informazioa ulergarria izango da eta hainbat hizkuntzatan egongo da. Kartelak, esku-orriak eta bestelako informazioa osasun-zentroetako eta CASSYReko gune komunetan egongo da, baita gune pribatuetan ere, hala nola emakumeen komunetan eta kontsultetan.
- ⇒ **Biktimen seme-alabek ez dute inoiz itzulpen-lanik egingo**, ezta indarkeria emakumearen kontra baino ez dela susmatzen denean ere.

## ARRETA KOORDINATURAKO IRIZPIDE OROKORRAK

- ⇒ **Osasun-zerbitzu publikoak emakumeen kontrako indarkeria hautemateko eta horri arreta egiteko baliabide garrantzitsuenetako bat dira**. Emakumeen kontrako indarkeriak ondorioak ditu emakumeen eta haien mendekoak diren pertsonen osotasun fisikoan eta mentalean, osasunez harremantzeko gaitasunean, eta sexu- eta ugaltze-osasunean. Horregatik, osasunean egingo den arretak biktima guztien osasun-egoeraren jarraipena hartuko du barnean, harik eta guztiz osatzen diren arte; hau da, indarkeriaren sintomatologia eta ondorio guztiak aintzat hartuko ditu.
- ⇒ Aintzat hartuko da emakumeen kontrako indarkeria bizi duten edo bizi izan duten emakumeek, neskatok eta neskek maiz jotzen dutela osasun-zerbitzuetara, nahiz eta ez duten beti indarkeriaren berri (ahoz) ematen, eta horrez ordeztu beste ondoez batzuk aipatzen dituztela, askotan espezifikoak ere ez direnak. Indarkeria ez hautemateak, askotan, betikotzea eta medikalizatzea dakar.
- ⇒ Emakumeek **konfiantza handia izaten dute osasun-langileen baitan** bizi duten indarkeriaren berri emateko, eta hori aukera handia da indarkeriari aurre egiteko. Osasun-langileak horren jakitun izatea bilatuko da.
- ⇒ Protokoloan esku hartzen duten osasun-zentroek emakumeen kontrako indarkeriaren arretari lehentasuna emateko antolatuko dute zerbitzua (kasu larriak berehala hartuko dituzte eta lehentasun izaera izango dute). Horretarako, protokoloan esku hartzen duten osasun-zerbitzu guztietan, **era koordinatuan esku hartzeko barneko zirkuituak, algoritmoak eta protokoloak** garatu eta jarraituko dira, emakumeen kontra gerta daitekeen indarkeriari aurre egiteko, Nafarroan indarrean dagoen Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Erakundearen Arteko Akordioa betez. Horietan, emakumeen kontrako indarkeria-kasuetan osasun-zentro bakoitzak jarraitu beharreko bidea zehaztuko da, sexu-indarkeria kasuetan zer egin barne (**hautematea-balioestea-esku-hartzea**). Tresna horiei esker, osasun-zentro bakoitzean **kasuak hobekiago koordinatuko dira eta hainbat diziplinetatik heldu ahalko zaie**, kasu guztien jarraipena eta deribazioa egin ahalko da.
- ⇒ Osasun-arreta egiteko ez da **salaketarik** behar eta protokoloa sinatzen duten zerbitzuetako osasun-langileek ez dute beren arreta salatzean jarriko (ez salatzeak ez du esan nahi ezin denik zauri-txostenik egin eta igorri). **Emakumeari jakinaraziko zaio zauri-txosten bat igortzeak berekin dakarrela prozesua epaitegietara eramatea eta, beraz, epaitegia berarekin**

### eta ustezko erasotzailearekin harremanetan jarriko dela.

- ⇒ Protokoloan esku hartze duten zerbitzuetako osasun-langileak indarkeria hautemateko **adi eta erne** egongo dira (jarrerak, sintomatologia eta **beste adierazle susmagarri batzuk**). Horretarako, osasun-langileek indarkeriaren mende egoteari lotutako **galderak** egingo dituzte langileek gaixotasunak ebaluatzean. Erantzun eraginkor bat joan beharko da horrekin batera, hau da, laguntza zuzena, tratamendua eta dagokion mediku-arreta eman beharko zaizkio. Galdera-**ereduak**: “Zer moduz doaz gauzak etxean?” “Bikote-harremanarekin pozik zaude?”. Galdera horiek susmoa dagoenean egingo dira, eta ez errutina moduan. Aintzat hartuko da, halaber, emakumeak bere egoeraren berri ematen ez badu ere, denbora eman behar zaiola, estutu gabe; eskualdean eskura dituen zerbitzuen berri emango zaio; eta indarkeriak haren osasunean eta seme-alabarenean dituen ondorioak azalduko zaizkio.
- ⇒ Inguruan informazio ugari dagoen arren, prozedura honetan osasun-langileendako lagungarriak zenbait **susmo-adierazle** jaso dira: **haurtzaroan emakumeen kontrako indarkeria bizi edo ikusi izana, norberaren aurrekariak eta bizi-ohiturak** (behin eta berriro gertatzen diren zauriak, sendagai gehiegi hartzea, hala nola psikofarmako gehiegi, etab.), **arazo gineko-obstetrikoak** (ugalmenaren gaineko kontrolik eza, zauriak genitaletan, sabelean edo bularretan haurdunaldian, hainbat abortu, etab.), **sintoma psikologiko ugari** (loezina, depresioa, antsietatea, bere buruaz beste zauritzeko saiakerak, neke psikikoa, suminkortasuna, elikadura-ohituen nahasmendua, egonkortasun emozionalik eza, etab.), **sintoma fisiko ugari** (zefaleak, min kroniko orokorra, zorabioa, ondoeza pelbisean, etab.), **osasun-zerbitzuen erabilera** (neurritz kanpo joatea, denbora luzez desagertzea, hitzordu eta tratamenduetara ez agertzea, bikotekidearekin joatea aurretik bakarrik joaten zenean, etab.), **zaugarritasun handiagoko egoerak** (haurdun edo erditu berri egotea, bereiztea, senideengandik eta gizartetik isolatzea, desgaitasuna, migrazioa, mendekotasun fisiko edo ekonomikoa, gizarte-gaitasunik eza, gizarte-bazterkeria egoera, etab.) eta senideen, lagunen eta arreta-sare publikoko langileen **informazioa**.
- ⇒ **Osasun-zentroek Norberaren Arreta-planak egingo dituzte, kasu bakoitzaren ezaugarrietara moldaturik**. Plan horiek aintzat hartuko dute indarkeriaren arretak denbora behar duela (kontsultan, baina baita prozesu bezala ere), lehenasuna biktima guztien segurtasuna dela eta planak biktimen ezaugarrietara egokiturik egon behar dutela, haien jatorrizko kulturara eta adinera barne.
- ⇒ Emakumeen kontrako indarkeria dagoenean legeak berariaz debekatzen du osasun-zerbitzuek kasua bikote-terapiara bidaltzea. Gainera, aintzat hartuko da **GAS** delakoak “Gurasoen Alienazio-sindromeak” ez duela oinarri zientifikorik eta zientifikoki onartutako gaixotasun-katalogoetatik kanpo dagoela.

## OSASUN-ZERBITZUEN ARTEAN:

### OSASUN-ZENTROAK, LARRIALDI-ZERBITZUAK ETA CASSYR

- ⇒ Sakanako osasun-langileek hautematen dituzten emakumeen kontrako indarkeria-kasuak (osasun-zentroak, larrialdi-zerbitzuak eta CASSYR) **osasun-zentroetako erreferentziazko gizarte-langileei** helaraziko zaizkie; horiek biktimarekin harremanetan jarriko dira eta egoerari aurreko egiteko orientazioa emango diote. Horretarako, eta beti ere biziraun dutenen baimenaz, kasuaren berri emango zaie, ahal dela posta elektronikoz, gordeta gera dadin, eta bestela telefonoz.
- ⇒ Protokoloa sinatzen duten osasun-zerbitzuetako langileek **Historia Kliniko Informatizatuan (HKI)** erregistratuko dituzte indarkeria-kasuak, baita egoera susmagarriak ere, eta **“flash”** telematiko bat (ohar bat) jarriko dute egoeraz ohartarazteko; oharrerako sarbidea osasun-langileek besterik ez dute izango, eta langile administratiboak horretatik kanpo geldituko dira. “Flash”ak larrialdietako eta lehen arretako langileen arteko komunikazioa errazten du.
- ⇒ **Osasun-zentroetako bilerak**
  - ▶ Astean behin, osasun-zentroko gizarte-langilea eta osasun-langileak (medikua eta erizaina, baita behar denean pediatra ere), dauden emakumeen kontrako indarkeria-kasuak balioesteko.
  - ▶ Osasun-zentroari dagozkion emakumeen kontrako indarkerian koordinatzearen inguruko alderdiak hilean behin egiten diren ohiko bileretako gai-zerrendan gehituko dira.
- ⇒ **Osasun-zentroyen arteko bilerak**
  - ▶ Sakanako osasun-zentroyen arteko koordinazioa errazteko, protokoloko erreferentziazko langileak sistematikoki bilduko dira **sei hilean behin**. Gainera, lankidetzara jarraitua izango da, egoerek eskatzen dutenean.

### ZAURI-TXOSTENETAN ERA KOORDINATUAN JARDUTEKO IRIZPIDEAK

- ⇒ 1/2004 Lege Organikoaren arabera, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka Babes Osoa Emateko Neurriei Buruzkoa (32. artikuluan), eta Prozedura Kriminalen Legearen arabera (262. artikuluan), beren kargu edo lanagatik delitu publiko baten berri duten pertsonak salatzerako derrigorturik daude, eta emakumeen kontrako indarkeria salatu beharreko delitu horietako bat da. Emakumeen kontrako indarkeria baieztatzen edo susmatzen den kasuak salatzeko **beharra** asetako jotzen da zauri-txostena bidaltzearekin.
- ⇒ Arreta egiteko ardura duten osasun-zentroetako, larrialdi-zerbitzuetako eta CASSYRko medikuek **zauri-txostenak egin beharko dituzte derrigor, kasuak larriak direnean, sexu-indarkeria dagoenean edo egoerak hala eskatzen duenean**. Zauri-txosten horiek mediku-txosten batekin eta argazkiekin batera (argazkiak egitea posible bada) joango dira, Iruñeko epaitegietara bidaltzeko. Txostenak dauden eruedetatik abiatu egingo dira eta osasun-zentroetan eskuragarri egongo dira beti.
- ⇒ Zauri-txostena eta mediku-txostena irakurgarriak izango dira eta ez dute zirriborrorik izango. Gainera, **zehatzak** izango dira eta, gutxienez, informazio hau jasoko dute: erasoak zer zauri sortu dituen (eragindako indarkeria-mota, biktimaren egoera psikikoa eta emozionala, dituen zauri fisikoak), beste datu kliniko batzuk, laguntza eragiten duten gertaeraren inguruko datuak eta aurrekariak (bakarrik edo lagundurik doan, une bateko

erasoa den edo errepikatzen den, lekukorik dagoen, erasoan besteren batek ere indarkeria jaso duen, etab.). Ustezko erasotzailearen edo erasotzaileen datuak ere jasoko dira, eta emakumearen arabera indarkeriaren erantzuleak esplizituki aipatuko dira.

- ⇒ Biziraun dutenei jakinaraziko zaie osasun-langileak derrigorturik daudela gertaera epaitegiei helaraztera. Behin betiko idatzaldiaren aurretik, biktimei zauri-txostena eta mediku-txostena irakurri eta kopia bat emango zaie, beti ere haien segurtasuna arriskuan jartzen ez denean (gerta liteke biktima ustezko erasotzailearekin batera joatea edo erasotzaileak etxean kopia aurkitzea). Kasu horretan, biktimaren konfiantzazkoa den pertsona bati helarazi dakiokeela adierazi ahalko zaio.
- ⇒ Zauri-txosten eta argazki guztiak HKIn gordeko dira.
- ⇒ **Aurrez aurrekoa ez den kontsulta bidez edo posta elektronikoz bidez, zauri-txostena egin duen langileak informazioaren berri emango dio biktimaren erreferentziarako osasun-zentroko gizarte-langileari**, biktimaren baimenaz, bere historia kontsultatzeko, berarekin harremanetan jartzeko eta emakumeak berak eta bere seme-alabek berehala izan ditzaketan beharrei erantzuteko.

## OSASUN-ZERBITZUEN ETA BESTE ZERBITZU BATZUEN ARTEAN:

### GIZARTE-ZERBITZUEKIN

- ⇒ Sakanako erreferentziarako zerbitzua, osasun-zerbitzuek emakumeen kontrako indarkeria-kasuak deribatuzko, Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIV da. Gainera, oro har, Altsasuko, Etxarri Aranazko eta Irurtzango osasun-zentroetako gizarte-langileek, eta ezin badu medikuek, honela jardungo dute:
  - ▶ Emakumeen kontrako **indarkeria dagoela susmatzen denean** edo emakumeak indarkeria hori bizi dutela jabetzen ez direnean, kasuaren arabera, laguntza edo kasua deribatzea eskatu ahalko da (telefonoz edo, idatziz uzteko, posta elektronikoz); **dagokion erreferentziarako oinarriko gizarte-zerbitzuari edo berdintasun-zerbitzuari laguntza eskatuko zaio edo kasua helaraziko zaio**. Kasua zerbitzu bati helaraztekoan, emakumeen baimenaz egingo da beti.
  - ▶ **Biziraun dutenak indarkeria egoeraz jabetzen direnean, Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIVrekin** koordinatuko dira eta kasua helaraziko diote. Oro har, EAIVrekin egiten den lehen hitzordua osasun-zerbitzuaren egoitzan egingo da, zerbitzu horretako emakumeen kontrako indarkerian erreferentziarako den pertsonarekin.
- ⇒ **Bilerak**
  - ▶ OGZetarako mankomunitateak eta osasun-zentroak sistematikoki bilduko dira **sei hilean behin** kasuen jarraipena banaka egiteko.
  - ▶ **EAIV Sakanako osasun-zentroekin bilduko da sistematikoki hiru hilean behin** kasuen jarraipena banaka egiteko.
- ⇒ OGZek eta EAIVk protokoloa sinatzen duten osasun-zerbitzuekin zehaztuko dituzte nola itzuliko dieten deribatzen dizkieten kasuen inguruko informazioa.
- ⇒ Osasun-zerbitzuetan, baita kontsulta-geletan ere, Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko EAIVren inguruko informazioa duten txartelak egotea bilatuko da.


### POLIZIEKIN

- ⇒ Osasun-zerbitzuetako batean, biktinek **salatu nahi dutela adierazten dutenean, osasun-zentroak Foruzaingoarekin jarriko dira harremanetan (Altsasuko polizia-etxea).**
- ⇒ Egoerak larriak direnean edo biktimaren bizitza arriskuan dagoenean, **SOS Nafarroako 112** zenbakiarekin jarriko dira harremanetan, kasu horietarako duen protokoloa abian jar dezan.

#### ZERBITZU JURIDIKOekin

- ⇒ **DELITUAREN BIKTIMEI ARRETA EGITEKO ETA LEGE-ORGANOekin LANKIDETZAN ARITZEKO SAILA, DBAS**
  - ▶ Protokoloan parte hartzen duten osasun-zerbitzuek aintzat hartuko dute DBASk genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren **erasotzaile**endako arreta terapeutikoko programa bat duela; programa hori borondatez egin behar da eta doakoa da.
  - ▶ Osasun-arretak aintzat hartuko du DBASk, **arreta judizial osoko zerbitzu espezializatu bezala**, biktimen eta adingabeen arreta psikologikoa egiten duela eta sexu-indarkeria kasuetan arreta terapeutikoa egiten ibilbide luzea egin duela.
- ⇒ **ALTSASUKO UDALEKO LEGE-AHOLKULARITZA**
  - ▶ Altsasuko emakumeen lege-aholkularitzari dagokionez, **hango udaleko lege-aholkularitza zerbitzua** aintzat hartuko da, zerbitzu horren bidez emakumeek beren baitan zentratuago dagoen arreta jasotzen dutelako, eta haiendako gertuagokoa den inguru batean.

## C) JARDUN KOORDINATUAREN LABURPENA



### KOORDINAZIO-TRESNAK

Bilera egituratuak Koordinazio mahaiarekin. Kasuak erregistratzea HKIn eta “flash” bidezko alerta. Osasun-zentroko gizarte-langileari kasu guztien berri ematea.

### ZERBITZUAK ETA EZAUGARRIAK

- ▶ **Altsasuko, Etxarri Aranazko eta Irurtzungo osasun-zentroak. Lehen mailako arreta:**
  - ⇒ **Lanak:** Indarkeria hautematea, balioestea eta arreta soziosanitarioa egitea. Kasuen jarraipena egitea eta deribatzea. Zauri-txostenak.
  - ⇒ Arreta jarraitua eta berehalakoa (larrialdietarako landa-zerbitzuak).
- ▶ **Honek ere esku hartzen du: ETXARRI ARANAZKO CASSYR** Indarkeria hautematea eta arreta egitea sexu- eta ugaltze-osasunean eskainitako zerbitzuen bidez.

### OSASUN-ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

- ▶ Osasun-zentro guztietan erreferentziazko pertsona bat egotea emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean arreta espezializatua emateko eta koordinazio teknikoa egiteko (gizarte-langilea).
- ▶ Diziplinarteko arreta, barneko zirkuitu espezifikoaren bidez, eta gizarte-langileei emakumeen kontrako indarkeria-kasu guztien berri ematea, jarraipena egiteko.
- ▶ Adi egotea galderen eta susmo-adierazleen bidez.
- ▶ Indarkeriari arreta egiteko norbanakoaren planak, kasuari egokiturik.
- ▶ Osasun-zentroetako langileei zauri-txosten guztien berri ematea, kasuei jarraipena egiteko.
- ▶ Barneko bilerak osasun-zentroetan astean behin (kasuen diziplinarteko jarraipenerako) eta hilean behin (arreta koordinatzeko)

### BESTE ZERBITZU BATZUEKIN KOORDINATZEA

- ▶ **Gizarte-zerbitzuekin: EAIvri helaraztea** (erreferentziazko zerbitzua). Indarkeria dagoela susmatzen denean edo onartzen ez denean, OGZetara jotzea.
- ▶ **Poliziarekin: Foruzaingoari edo Guardia Zibilari helaraztea** (Altsasuko polizia-etxea) salatu nahi denean.
- ▶ **Zerbitzu juridikoekin: Erasotzaileak DBASri helaraztea** erasotzaileendako arreta terapeutikoko programetan nahita parte hartu nahi dutenean. Arreta terapeutikoa behar duten emakumeen eta nesken kasuak ere helarazi ahalko zaizkio (sexu-indarkerian espezializazioa).

### **3. SAKANAKO UDALEK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA-KASU LARRIEI EMANGO DIOTEN ERANTZUNA**

### 3.1. SAKANAKO UDALAK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN KONTRA LERRATZEN DIRA

- ▶ Sakanako udal guztiek emakumeen kontrako indarkeria gaitzetsiko dute beti, indarkeria horrek hartzen dituen bide eta forma guztietan. Gainera, komunikazio-ekintza guztietan, testuinguruan jarriko da emakumeen kontrako indarkeria egiturazkoa dela eta erantzun publiko sendo bat behar duela. Ikuspegi pedagogikoago batetik, ahal den guztietan jakinaraziko da emakumeen kontrako indarkeriaren oinarrian emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria diskriminatzaileak daudela eta azpimarratuko da indarkeria saihesteko eta emakumeek, neskatoek eta neskek bizitza aske bat dutela bermatzeko genero-berdintasuna bultzatu behar dela.
- ▶ Hilketak kasuetan eta, indarkeria matxista dela medio, emakumeak, neskatoak edo neskek, seme-alabak barne, larriki zauriturik dauden egoeretan, edonon gertatu direla ere, Sakanako udalek erakunde-erantzun publiko jakin bat egingo dute, eta honela egituratuko da:
  1. **Ez da inprobisatuko:** Udalen erantzuna planifikatua izango da, ez da arinegi egingo eta, zer udalerritan gertatu den, **udal hori izango da burua**, Altsasuko berdintasun-zerbitzuak edo Sakanako Mankomunitateko berdintasun-zerbitzuak aholkaturik.
  2. **Gertatutakoa egiaztatzea:** Zabaltzen den informazio guztia iturri ofizialekin egiaztatuko da, eta ez da daturik edo aurrerapenik zabalduko ikerketa-sumarioa isilpekoa denean.
  3. **Begirunea eta informazioaren konfidentzialtasuna:** Ez da daturik edo informaziorik zabalduko biziraun duten biktimen edo haien senideen baimenik gabe. Emango diren datuak orokorrak izango dira: eragindako eta jasandako indarkeria-mota identifikatzeko eta hartutako neurriak justifikatzeko gutxienekoak izango dira. Biktimaren eta erasotzailearen jatorriaren inguruko informazioa saihestuko da, baita haien egoera pertsonalaren edo seme-alaben ingurukoa ere.
  4. **Berehalakoa:** Udalen erantzun publikoa gertatutakoa jakin eta ahal bezain laster eman dadin bilatuko da (gertatutakoaren berri izan eta 24 ordura).
  5. **Araudiarekin bat doan terminologia erabiliko da:** “Emakumeen kontrako indarkeria”, “indarkeria matxista”, “indarkeria sexista” edo “genero-indarkeria”.
  6. **Biktimak udalen erantzunaren erdigunean:** Sakana udalerritik txiekiek osatzen dutela eta horietan guztiek elkar ezagutzen dutela aintzat harturik, honela jardungo da:
    - ▶ Emakumeak, beren seme-alabak eta gertukoak ez birbiktimizatzeko, biktimak eta erasotzaileak nor diren jakiteko datuak poliziek eta udaletako gizarte-zerbitzuetako langileek baino ez dituzte izango (oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako mankomunitatekoek, EAIVkoek eta berdintasun-zerbitzukoek).
    - ▶ Gertatutakoa baieztatzea (berdintasun-zerbitzuak ikerketa egin duen polizia-indarrarekin jarriko da harremanetan). Bestela, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez (INAI/NABI) egiaztatuko da gertatutakoa.


- ▶ Indarkeriaren biktimendako erreferentziazko zerbitzuak (OGZk edo EAIVk) harremanetan jarriko dira biktimekin, edo, kasuaren arabera, senideekin. Horrela, erantzuna eraginkorra eta biktimaren eta haren seme-alaben beharretara egokiturik dagoela ziurtatuko da (arreta psikologikoa, arreta juridikoa, zerbitzu eta laguntzetarako sarbidea, etab.).
7. **Informazioa koordinatzea:** Gauzak jazo diren herriko udalak emango den udal-erantzuna jakinaraziko die Sakanako gainerako udalei eta INAI/NABIri, berdintasun-zerbitzuen bitartez. Horrez gain, abian jarriko diren ekintzak INAI/NABIrekin koordinatuko ditu, erakunde horrek emakumeen kontrako indarkeriako hilketa bortitzen edo zauri larrien aurrean jarduteko duen erakunde-protokolo espezifikoan zehazten den esku-hartzean oinarriturik.
  8. **Kaltearen konponketa kolektiboa:** 14/2015 Foru Legearen arabera (apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa), kaltearen konponketa kolektiboa bermatzeko moduetako bat dira emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten duten eta biktimekiko errespetua erakusten duten omenaldi eta ekintza publikoak Udalak talde feministekin eta emakumeen taldeekin harremanetan jarriko dira, ekintza koordinatuak garatzeko eta gune horiek antolatzen dituzten gaitzespen-elkarretaratzeetara gehituko dira.

### 3.2. SAKANAKO UDALEN JARDUNA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA GATIK EMAKUME BAT HILTZEN DUTENEAN EDO BIZIRAUN DUTENEK ZAURI LARRIAK DITUZTENEAN

1. Gauzak jazo diren herrian, udalak **ekintzak koordinatzeko mahai** bat antolatuko du, eta hauek osatuko dute: alkateak, berdintasun-zerbitzuak eta Foruzaingoak edo kasuaren arduraren zuzendaria (Altsasun, udaltzaingoa ere egongo da). Mahaiak udaleko komunikazio-ekintza guztiak koordinatuko ditu. Mahaiak garatu behar dituen ekintzei dagokienez, berdintasun-zerbitzuak erakunde-adierazpen bat proposatuko du, eta proposamen hori bozeramaileen batzordeari edo osoko bilkura bereziari aurkeztuko zaie, onar dezaten. Mahaiak izango da udaletako informazio-iturri ofizial bakarra gainerako erakundeetako eragileendako, gizarte-eragileendako eta eragile ekonomikoendako. Gainera, biktimari edo senideei baimena eskatuko die udalak, gertatutakoa gaitzesteko ekintzak egiteko (gertatutakoa prozesatzeko behar duten denbora eta hartzen duten erabakia errespetatuz). Senideek ez badute ekintza publikorik nahi, haien erabakia aintzat hartuko da eta aurreikusitako erantzun-ekintza publikoak era egokienean moldatuko dira, beti ere biktimen birbiktimizazioa saihesten delarik.
2. **Osoko bilkura berezia deituko da**, gertaeren herrian udalak abian jarriko dituen ekintzen berri emateko (erakunde-adierazpena, bandera haga erdian, informazioa udal-webgunean eta gizarte-sareetan, udaletxean emakumeen kontrako indarkeriara gaitzesteko sinboloak paratzea, etab.) eta erabakitze gaitzespen-elkarretaratze ofizial bat deituko duen edo beste erakundeetako eragileek edo beste gizarte-eragileek horretarako deitu dituztenei gehituko zaien. Osoko bilkura horretan erabaki ahalko da udalak berak zigor-prozeduretan herri-akzioa egingo duen (kasuaren arabera erabakia beranduagorako utz daiteke), EIFLk aurreikusten duen bezala. Erabakia biktimari edo senideei jakinaraziko zaie, haien onospena izateko, horretarako une egokia denean (herri-akzioa egiteko ez da, berez, biktimaren edo haren senideen baimena behar).


3. Osoko bilkuraren aurretik, koordinazio-mahaiak **udalbatza** deituko du kideen erantzun publikoa nolakoa izan behar duen aholkatzeko.
4. Behin udalak onartzen duenean, Sakanako beste udal guztiei bidaliko zaie erakunde-adierazpena. **Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioari** ere bidali ahal zaio, Nafarroako gainerako toki-entitateei helarazi diezaien, horiek ere adierazpenera gehitzeko.
5. Alkatetzak, udal-webgunearen, gizarte-sareen eta beste komunikazio-bideen bidez, eskerrak luzatuko dizkie herritarrei eta beste erakundeei, beren mobilizazioagatik.

## 4. PROKOLOAREN KUDEAKETA



Atal honetan protokoloa ezartzen joan dadin zenbait mekanismo garrantzitsu deskribatuko dira. Aintzat hartuko da bilatzen den kudeaketa-eredua egingarria eta malgua izan behar dela; horri esker, protokoloa hobetuko da, protokoloa sinatzen duten zerbitzuek emakumeen kontrako indarkerian egiten diren lege- eta gizarte-aldaketak eta aldaketa teknikoak bere egin ahala.

## 5.1. PROTOKOLOA KOORDINATZEKO ETA KUDEATZEKO EGITURAK



### PROTOKOLOKO EGITUREN ETA HAIEN FUNTZIOEN DESKRIBAPENA

#### ESKUALDEKO KOORDINAZIO-MAHAIA, EKM

Akordioaren atalean deskribatzen den bezala, Eskualdeko Koordinazio-mahaian protokoloa zerbitzuetako bakoitzak izendatu dituen langileak bilduko dira, koordinazio eta lankidetzaren teknikoak egiteko.

EKMri hauek dagozkio:

- ⇒ Lan-lehentasunak identifikatzea eta protokoloaren markoan esparru bakoitzean egingo diren ekintzak onartzea (bi urteko lan-planak).
- ⇒ Zerbitzu bakoitzean egindako ekintzen eta indarkeriak izandako eraginaren inguruko urteko informazio estatistikoa jasotzea. Informazio hori jasotzeko irizpide homogeneoak erabiliko dira.
- ⇒ Lan-txostenak onartzea (bi urteko lan-plana eta urteko jarraipen-txostenak).
- ⇒ Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko arreta-sare publikoko beste zerbitzu batzuei helaraziko zaizkien eragin-txostenak proposatzea eta onartzea.


**EKMk gutxienez ohiko hiru bilera egingo ditu urtean. Horrez gain, bilera bereziak egingo ditu, Mahaia osatzen duten kideetako bi entitateek eskaturik. Entitate guztiek protokolo honi buruzko beste entitatearen eskaerari arreta emateko konpromisua erakusten dute**

EKMko zuzendaritza Altsasuko udaleko berdintasun-zerbitzuak eta Sakanako Mankomunitateko berdintasun-sailak izango dute, eta txandaka aldatuko dute. EKMko zuzendaritza duenak deituko ditu bilerak eta jasoko ditu bilkuretako aktak.

<b>ESKATZEN DIREN TALDE TEKNIKOAK</b>	<p>Lantalde teknikoak sortu ahalko dira, gai edo esparru jakinetan sakontzeko. Talde horietan, EKM osatzen dutenez gain, beste eragile edo pertsona batzuek ere parte hartu ahalko dute, beren ezagutzengatik informazio garrantzitsua ekar dezaketenean. Taldeak aldi baterako baino ez dira izango.</p>
<b>ALTSASUKO UDALEKO ETA SAKANAKO MANKOMUNITATEKO BERDINTASUN- ZERBITZUAK</b>	<p>Protokoloaren koordinazioa bi berdintasun-zerbitzuen ardura da. Besteak beste, funtzio hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>⇒ Bi urteko lan-planak proposatzea eta, behin adosturik, garatzea, EKMk egiten dituen ekarpenetatik abiatuz.</li> <li>⇒ Emakumeen kontrako indarkeriako prestakuntza-planak proposatzea, bi urteko lan-planak era eraginkorrean garatu daitezkeen.</li> <li>⇒ Intzidentziak era arrazoituan idaztea.</li> <li>⇒ Protokoloaren urteko jarraipen-txostenak idaztea; horrek barne hartzen du emakumeen kontrako indarkeriari aurre nola egin zaion Sakanan, baita indarkeria horrek zer eragin duen kuantitatiboki analizatzea ere (EKMn parte hartzen duten zerbitzuek bidalitako eta INAI/NABIko datu estatistikoetatik abiatuz egingo da).</li> <li>⇒ Protokoloari jarraitasuna ematea eta protokoloaren kanpoko ebaluazioa kudeatzea.</li> </ul>
<b>EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAK LURRALDE BATZORDEA, EIB</b>	<p>Gune horretan Sakanako udal guztietako ordezkari politikoak daude (Altsasuko udaleko berdintasun-batzordea eta Sakanako Mankomunitateko gainerako 14 udaletako berdintasun-arloak edo sailak), eta aurrekontuetan urtean egingo diren ekintzak egiteko behar beste diru dagoela bermatuko da; ekintza horiek abian jartzea Sakanako Mankomunitateko udalen ardura da, Altsasuko udalarena barne. Batzordeak, gainera, funtzio hauek izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>⇒ Protokoloaren urteko jarraipen-txostenak ezagutzea.</li> <li>⇒ Bi urteko lan-planak onartzea.</li> </ul> <p>Batzordeak gutxienez ohiko bilera bat egingo du urtean. EIBko zuzendaritza Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko udalak izango dute, urtebeteko txandetan. Altsasuko udaleko berdintasun-sailak eta Sakanako Mankomunitateko berdintasun-sailak batzordeko idazkaritza-lanak egingo dituzte.</p>

## 5.2. PROTOKOLOAREN PLANIFIKAZIO-, JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Protokoloa era eraginkorrean ezartzeko, protokoloa era progresiboan garatzeko lan-prozesua bildu da jarraian.



#### 4.1.1. PROZESUAREN HASIERA

Protokoloa sinatu bezain laster, lan hauek egingo dira:

- ⇒ Eskualdeko Koordinazio-mahaia osatuko duten pertsonak ofizialki izendatuko dira eta mahaia ofizialki osatuko da (gehienez ere protokoloa sinatu eta bi hilabetera).
- ⇒ Protokoloaren berri emango da eta udalen barruan zabalduko da, baita Sakana osoan ere.
- ⇒ Emakumeen kontrako Indarkeriarako Lurralde-batzordea osatuko da (maila politikoan) eta batzordea osatzen dutenei emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko prestakuntza emango zaie. Horri esker, protokoloa ezartzearen aldeko giroa sortu, eta protokoloarekiko konpromiso politikoa indartuko da.
- ⇒ 2021 eta 2022 urteetarako lehentasunezko lanak identifikatuko dira.

#### 4.1.2. PROGRAMAZIOA EGITEA

Ekintzak bi urterako planifikatuko eta programatuko dira. Horretarako, EKMko kideek beren lan-planifikazioa egingo dute (beren zerbitzukoa), eta Altsasuko eta Sakanako berdintasun-zerbitzuei helaraziko diete **bi urteko lan-plana** egin dezaten.

Eskualdeko Koordinazio-mahaiak lehentasuna duten ekintzak eta bi urteko lan-plana onetsiko ditu eta aurrekontuetan jasoko ditu, udal aurrekontuak onartu aurretik.

Bi urteko lan-planak egiteko, lan-prozedura honi jarraituko zaio:

LANA	ARDURA
<b>BI URTEKO LEHENTASUNAK IDENTIFIKATZEA</b>	ESKUALDEKO KOORDINAZIO-MAHAIA
<b>BI URTEKO LAN-PLANA EGITEA, AURREKONTUETAN JASOTZEA ETA ONARTZEA</b>	<p>⇒ NORK EGIN ETA JASOKO DUEN AURREKONTUETAN: ZERBITZU BAKOITZAK</p> <p>⇒ TALDEKO DOKUMENTUA NORK EGINGO DUEN: BERDINTASUN-SAILEK</p> <p>⇒ NORK ONARTU ETA JASOKO DUEN AURREKONTUAN: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARAKO LURRALDE-BATZORDEAK (SAKANAKO UDALEI BAINO EZ DAGOZKIEN EKINTZETARAKO)</p>
<b>PRESTAKUNTZA LAN-PLANAK ERA ERAGINKORREAN GARATZEKO</b>	BERDINTASUN-SAILAK (PROKOLOA ABIAN JARTZEAREKIN LOTURIKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK BAINO EZ). ZERBITZU BAKOITZEKO LANGILEAK PRESTATZEKO ERANTZUKIZUNA ZERBITZUAK BERAK DU.

#### 4.1.3. EZARTZEA

Behin lan-plana onaturik, lan-planean jasotako ekintzak abian jarriko dira. Ekintzak egiteari esker, protokolo koordinazio-egituren lana mugatuko da, ekintzak indartuko ditu eta ekintzen edukia bera ere hobetuko du.

LANA	ARDURA
<b>EKINTZAK EGITEA</b>	<p>EKMko KIDEEK, BI URTEKO LAN-PLANEAN DUTEN ERANTZUKIZUNAREN ARABERA.</p> <p>⇒ EKM ERABAKIKO DU, LAN-PLANAREN ARABERA, LAN-TALDEAK OSATZEA ESKATUKO DEN.</p>

#### 4.1.4. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Protokoloaren jarraipen- eta ebaluazio-sistemari esker, ekintzak zer neurritan bete diren ikusiko da, baina hobetu beharreko alderdiak ere identifikatu eta emaitzak ebaluatuko dira, baita protokoloak emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiten Sakanako koordinazioan izandako eragina ere.

Protokoloaren jarraipen-prozesuan, **intzidentzia-bostenak** egin ahalko dira, protokolo Akordioaren testuan ezarritakoa betetzen ez den kasuetarako, edo Nafarroan indarrean dagoen Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Erakundeen Arteko Akordioa betetzen ez den kasuetarako. Txostena intzidentzia eginarazten duten zerbitzuen erakunde edo entitate titularrari edo haien ordezkariari helaraziko zaio, baita Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendaritzari ere; azken horrek du Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Nafarroako Erakundeen Arteko Akordioaren jarraipen-batzordearen zuzendaritza, kasua behar bezala baloratu eta aintzat har dezan.

LANA	ARDURA
<b>EKINTZEN JARRAIPENA ETA HOBETZEKO ALDERDIAK PROPOSATZEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>⇒ BERDINTASUN-SAILAK (TXOSTENAK)</li> <li>⇒ EKM (INFORMAZIOA BIDALTZEN DU ETA HOBEKUNTZAK PROPOSATZEN DITU)</li> <li>⇒ INTZIDENTZIAK: ESKUALDEKO KOORDINAZIO-MAHAIK PROPOSATZEN ETA ONARTZEN DITU. BERDINTASUN-SAILEK EGITEN ETA BIDALTZEN DITUZTE</li> </ul>

Bestalde, protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa hiru tresna jakinen bidez egingo da:

URTEKO JARRAIPEN-TXOSTENAK
Berdintasun-sailek bi urteko lan-planen urteko jarraipen-txostenak egingo dituzte. Txosten horiek emakumeen kontrako indarkerian Sakanan egindako arretaren inguruko informazio kuantitatiboa jasoko dute.
ADIERAZLE-SISTEMA
Protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, adierazle-sistema erraz eta arin bat diseinatuko da. Horri esker, bi urteko lan-planetan diseinatutako ekintzak zer neurritan bete diren ebaluatuko da (burutze-adierazleak), baita protokoloa zer neurritan ezarri den (prozesu-adierazleak) eta emakumeen kontrako indarkeriaren arreta Sakanan zer neurritan hobetu den ere (eragin-adierazleak).
EBALUAZIO-TXOSTENA
Lau urtean behin protokoloaren ebaluazio-txosten bat egingo da; horretan, protokoloaren garapenean esku hartu duten zerbitzu guztiek esku hartuko dute, baita emakumeen kontrako indarkeriaren Sakanako biktimek ere.

## GIZARTE-ZERBITZUAK

- ▶ **IRUÑERRIKO ETA NAFARROAKO IPARRALDEKO EAIV**  
Etxaburura kalea 27, Berriozar. Tfno-zenbakia.: 608313533; 948 004 952

Sakanako udalerrietara mugitzen da.

- ▶ **Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitatea.** ☎ [948467662](tel:948467662) ✉ [ssbaltsasu@ssbaltsasu.eus](mailto:ssbaltsasu@ssbaltsasu.eus)
- ▶ **Etxarri Aranazko Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitatea** ☎ [948460752](tel:948460752) ✉ [info@etxarriogz.eus](mailto:info@etxarriogz.eus)
- ▶ **Irurtzungo Zonaldeko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako Mankomunitatea** ☎ [948600694](tel:948600694) ✉ [ssbirurtzun@gmail.com](mailto:ssbirurtzun@gmail.com)

### BERDINTASUN-ZERBITZUAK:

- ▶ **Altsasuko udaleko berdintasun-zerbitzua**
- ▶ ☎ [948 564 823](tel:948564823)- [628328593](tel:628328593) ✉ [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net)
- ▶ **Sakanako Mankomunitateko her dintasun-zerbitzua**

## OSASUN-ZERBITZUAK

- ▶ **Altsasuko osasun-zentroa** Zelandi kalea z/g Altsasu  
☎ [948564966](tel:948564966)- [948564965](tel:948564965)
- ▶ **Etxarri Aranazko osasun-zentroa** Larrañeta kalea z/g Etxarri Aranatz  
☎ [948567060](tel:948567060)
- ▶ **Irurtzungo osasun-zentroa** Foruen plaza. Irurtzun ☎ [948507005](tel:948507005)
- ▶ **CASSYR:** Ginekologia-, obstetrizia- eta sexu-heziketa zerbitzua. Larrañeta z/g .Etxarri Aranatz ☎ [948567063](tel:948567063) ☎ [948567062](tel:948567062)

### MEDIKU-AHOLKULARITZAK

**ETXARREN, UHARTE ARAKIL** ☎ [948464220](tel:948464220), **LAKUNTZA:** ☎ [948464846](tel:948464846),  
**ARBZU** ☎ [948461133](tel:948461133), **BAKAIKU** ☎ [948562954](tel:948562954), **ITURMENDI**  
☎ [948562994](tel:948562994), **URDIAIN** ☎ [948468225](tel:948468225), **OLAZTI** ☎ [948467160](tel:948467160), **ZIORDIA**  
☎ [948467548](tel:948467548)

## SAKANAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA PROTOKOLOA

COORDINAZIOA      ETA      INFORMAZIO  
OROKORRA:  
▶ **ALTSASUKO      UDALEKO      BERDINTASUN-  
ZERBITZUA**

**LARRIALDIAK**  
**S.O.S NAFARROA 112**  
**LARRIALDIETARAKO ZENTROA**  
**LAGUNTZA JURIDIKO ETENGABEA**  
**LARRIALDIKO ARRETA**  
**PSIKOLOGIKOA**

## POLIZIA (24 orduko arreta)

- ▶ **ALTSASUKO UDALTAINGOA:**  
☎ [629202414](tel:629202414)
- ▶ **FORUZAINGOA (Altsasuko polizia-etxea):**  
Tfno-zenbakia: [848426403](tel:848426403)      Laguntza-brigada: ☎
- ▶ **Guardia Zibila:**  
☎ [948296850](tel:948296850) (EMUMErako 5260 luzapena) eta 062

## ZERBITZU JURIDIKOAK ETA EPAITEGIAK

- ▶ **EAZ (Emakumeen Arreta Juridikorako Zerbitzua):** Etxaburura kalea 27, Berriozar.  
☎ [948 004 952](tel:948004952) eta [948 004 953](tel:948004953) (hitzarrearekin egiten du aholkularitza). Iruñean ere egiten du, Iruñeko Abokatuen Elkargoan.
- ▶ **DBAS (Delituaren Biktimen Arreta Bulegoa):** Iruñeko Justizia-jauregia, Epaitegi Dekanoaren aurrean. Elio epailearen plaza 1, behe-solairua.  
☎ [848423376](tel:848423376), [848421387](tel:848421387) eta [848427671](tel:848427671)

## ZERBITZUEN INGURUKO INFORMAZIO GEHIAGO

**LANGILEENTZAKO GIDA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI ELKARREKIN AURRE EGITEKO NAFARROAKO PROTOKOLOA**

## 6. ERABILITAKO ERREFERENTZIAK



<b>III. Akordioa edo Erakundeen arteko III. Akordioa</b>	Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Nafarroako Erakundeen Arteko III. Akordioa (protokoloa egiten denean indarrean dagoen akordioa)
<b>ATENPRO</b>	Genero-indarkeriaren biktimen Arretarako eta Babeserako Telefono-zerbitzua
<b>CASSyR</b>	Sexu- eta Ugaltze-osasunari Arreta Egiteko Zentroa
<b>COMETA</b>	Genero-indarkeria kasuetan Bitarteko Telematikoen bidez Neurriak eta Urruntze-zigorrak Egiaztatzeko Gailua.
<b>ELB</b>	Emakumeen Kontrako Indarkeriarako Lurralde-batzordea
<b>EAIV</b>	Genero Indarkeriaren Biktimentzako Arreta Osoko Taldea (gazt. <i>Equipo de Atención Integral a Víctimas de la Violencia de Género</i> )
<b>HKI</b>	Historia Kliniko Informatizatua
<b>INAI/NABI</b>	Instituto Navarro para la Igualdad/Nafarroako Berdintasunerako Institutua
<b>LFVM</b>	14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa.
<b>1/2004 LO 1/2004 Lege Organikoa</b>	1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriatik Babes Osoa Eskaintzeko Neurrien ingurukoa.
<b>EKM</b>	Eskualdeko Koordinazio-mahaia
<b>PSIMAE</b>	Psikologia Juridiko eta Forentseko Institutua Emakumeen kontrako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeendako arreta psikoterapeutikorako programak kudeatzen ditu DBASendako, baita genero-indarkeriako eta sexu-indarkeriako erasotzaileendako programa terapeutikoak ere.
<b>SEA</b>	Sartze-errenta Aktiboa (diru-laguntza).
<b>EAZ</b>	Emakumeen Arreta Juridikorako Zerbitzua
<b>DBAS</b>	Delituaren Nafarroako Biktimei Arreta Egiteko eta Lege-Organoeekin Lankidetzan Aritzeko Saila (Delituaren Biktimen Arretarako Bulegoa ere bada).
<b>SIUSS</b>	Gizarte-zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio-sistema. Esku-hartze profesionala egiteko oinarrizko datuak jasotzeko aukera ematen du
<b>GAS</b>	Gurasoen Alienazio-sindromea
<b>SEPE</b>	Estatuko Lan Publikoki Zerbitzua
<b>GZ</b>	Gizarte Zerbitzuak
<b>OGZ</b>	Oinarrizko Gizarte-zerbitzua

<b>Biziraun dutenak</b>	Indarkeriari biziraun diotenak genero-indarkeriaren biktimak dira eta jasandako indarkeria-prozesua gainditzeko oneratzeko-prozesuari ekin diote.
<b>Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak</b>	Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak dira EIFLn aurreikusitako indarkeriazko ekintzen ondorioak zuzenean edo beren baitan pairatu duten emakumeak, baita beren seme-alabak eta indarkeriazko inguruan haiekin bizi direnak; zaugarritasun-egoera batean daude eta, horregatik, indarkeriak haiei ere eragiten die.
<b>VioGen</b>	Espainiako Barne Ministerioaren mendeko sistema bat da, Segurtasunerako Estatuko Idazkaritzak kudeatua, genero-indarkeria kasuei jarraipen osoa egiteko

# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO JARDUNA KOORDINATZEKO SAKANAKO I. LURRALDE-PROTOKOLOA



Altsasuko Udala  
Ayuntamiento de Alsasua

**Mank**  
s a k a n a



Jardun hau berdintasun ministroaren diruz lagundurik egin da, berdintasunaren aldeko eta genero indarkeriaren aurkako estatuko idazkaritzaren bidez.